

Berrigara



Ehizarako debekaldia jaso da, eta ehizara zaletuak diren bergarrarrak, inguruko baso eta kanpoko kotoetan arituko dira azaroko lehenengo astera bitartean

Ehiza sasoi bete-betean


HARREMAN

Denda Solidarioa

Asia, Afrika eta Hegoamerikako produktuak zure esku. Artisautza, textila, jakiak, kafea, rona, tea,...

Etorri eta egizu zure EROSKETA SOLIDARIOA!

DEBA GARAIKO ONGEK BULTZATUA



Leku herrira aldatu gara Arrasateko Eroski Merkatalgunean.

Gozatu udaz urte osoan zehar



 **902 123 456**
NaturGas, Euskadiko gasa



NaturGas



Sociedad de Gas
de Euskadi, s.a.

Grupo EGI



Transgenikoak, dietaren ezinbesteko osagaiak

Nora Palmitano / Irakaslea

Elikagai transgenikoei buruz dezentegitaratu da aspaldi honetan. Iritzi kontrajarriak batzuetan eta ez hain kontrajarriak besteetan. Egia esan oso gutxi du kalterik ez dutela sortzen esateko ausardia. Gehienetan gaitzik sortu/sortuko dutenik frogatzea ezinezkoa dela esatera mugatzen dira. Azken hau gezurra ez bada ere, duen zuhurtziak susmo txarrak sortarazten dizkit.

Jarraitu baino lehen aitortu behar dut biogenetikaz ez dakidala ezer. Aldizkari eta egunkarietatik "ikas" daitekeenaz aparte... Ez, kontsumitzaileok ez dugu fidagarriak izan daitezkeen informazio eta datuak lortzeko biderik. Horregatik esango dudan guztia nire ezjakintasunaren burutazioak besterik ez dira.

Harira noa. Joan zen igandean, "Gara" egunkarian transgenetikaz azalduko kroniken irakurketa bat baino gehiago egin eta zientzi fikziotik murgiltzeko aukera ematen digu. Laburtzeko hauexek dira protagonistak: a) The Lancet aldizkaria, medikuntza arloan munduko ospetsuenetarikoa bat, eta bere aholkulari taldea; b) Arpad Pusztai izeneko zientzialaria, ikerkuntza munduan aski ezaguna eizena; c) Eskoziako Rowett institutua, 30 urtez aipatutako Pusztai-ren lantokia; eta

bukatzeko d) Pusztai bere ikerketak burutzeko erabili zituen arratoitxoak eta hauek jandako patata transgenikoak.

Kontua simple-simplea da. Patata transgenikoak jan zituzten arratoiek kalte handiak pairatu zituzten gorputzeko organo garrantzitsuenetan, elikagaiak xurgatzeko gaitasuna gutxitu zitzaizen eta immunologi sistemaren linfozitoen murrizketa nabaria izan zuten.

The Lancet aldizkari ospetsuak eman zuten ikerketaren berri, baina dirudienez bere aholkulari-taldearen onespenez gabe.

"Patata transgenikoak jan zituzten arratoiek kalte handiak pairatu zituzten gorputzeko organo garrantzitsuenetan, elikagaiak xurgatzeko gaitasuna gutxitu zitzaizen eta immunologi-sistemaren linfozitoen murrizketa nabaria izan zuten"

be. Hauek aldizkaria salatzen mehatxua egin zuten. Hainbesteko iskanbila sortu zen, non Rowett institutuak ikerketaren emaitzak baliogabetzeaz batera 30 urteko iharduera profesional ezin hobea zuten langilea "jubilatua" zuten.

Orduetik hona Pusztai behin eta berriro berretsi du bere salaketa, eta beste ikerlari batzuk berarekin bat etorri dira. Berak egiten duen eskaera zentzuduna iruditzen zait: elikagai transgenikoak merkaturatu aurretik, edozein botikak pasa beharreko frogaldia gainditu beharke dute.

Honaino kronika, hemendik aurrera lerroen artean irakurtzen dudana. Alde batetik zientzialariek bere ikerketak egiteko askatasun mugatua dutela. Ikertu ahal dute nahi duten arloan baldin eta emaitzak onargarriak badira. Beste horrenbeste argitara daitekeenarekin: norbaiten edo zerbaiten onspena ezinbestekoa.

Beste aldetik, ematen du zientzia-munduan eta ikerkuntza-munduan aspalditik eta ondotxo dakitela zeintzuk diren produktu hauek sor ditzaketan ondorio eta kalteak.

Eta azkenik, hauek ahalbait denbora luzeenean ezkutuan mantendu nahi ditzuzte.<

barruan



J.A. Pagola

Gipuzkoako bikario nagusia

"Gure artean polemika asko eta elkarrizketa gutxi dago, zoritxarrez"

8.



Jesus Mari Biain

Bergara taldeko entrenatzailea

"Partidu oso zaila izango da zapatukoa baina ez da ezinezkoa Realari irabaztea"

20.



Maite Irizar

Pol Pol taldeko idazkaria

"Loteria on bat tokatuz gero, munduan zihar bidaiatu eta etxia eraikiko neuke"

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1919ko urria. 80 urte bete dira urri honetan Bergarako tindalari, ehungile, irule, zapatari eta larruontzaileek 8 orduko lanaldia eskatzeko grebara jo zutela. Grebak hilabete osoa iraun zuen eta azkenean langileek garaipena lortu zuten.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1770. Urriaren 18an Agustin Kardaberaz idazlea hil zen Bolonian.

1805. Urriaren 21ean Txurruka mutrikuarra hil zen Trafalgarren.

1833. Urriaren 21ean bideak hondatzen zituztelako Kataluniako gurdien aurka azaldu ziren Gipuzkoan.

1980. Urriaren 23an Ortuellako Martzelino Ugalde ikastetxean gasa lehertu eta 51 pertsona hil ziren, gehienak haurrak.

MUNDUAN GERTATUA

1968. Urriaren 20an, Jacqueline Kennedy eta Aristoteles Onassis ezkondu ziren.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 15

3-14-17-22-28-41 (osag.34/itz.0)

Astelehena 18

4-16-35-37-39-42 (osag 5/itz.6)

Martitzena 19

1-6-23-34-46-48 (osag.26/itz.4)

Eguaztena 20

3-7-16-39-41-43 (osag.17/itz.1)

PRIMITIVA

Zapatua 16

2-3-10-16-34-46 (osag.43/itz.1)

Domeka 17 Saritzarra

4-11-13-20-43-46 (osag.40/itz.0)

ONCE

Eguakitza 15: 50.442 (183 seriea)


Astelehena 18: 35.748

Martitzena 19: 34.421

Eguaztena 20: 02.943

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Nahasi samarra dabil eguraldia egun hauetan eta berdin jarraituko du asteburuan ere: hego haize zakarra, tarteka euri zaparradak eta ostarteak arratsaldeko lehen orduetan. Temperaturak gora egingo du zertxobait domekan.

Eguzkia

Domeka, urriak 24



Sortu: 08:38



Gorde: 19:24

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

Ilargiaren aldiak



Ilgora: urriak 17



Ilbete: urriak 24



Ilbehera: urriak 31




Ilberri: azaroak 8

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 14	22	11	-
Eguakitza 15	24	12	-
Zapatua 16	24	9	12,3
Domeka 17	15	13	1,8
Astelehena 18	17	10	0,8
Martitzena 19	18	6	3,1
Eguaztena 20	20	10	2,6

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



JOSU OKINA

Atzera-aurrera

1. Joan-etorria.

- Neuk pe eztakitt zenbat atzera-aurrera ein ddoten dentistiana.

2. Jende edo ibilgailu mugimendua

- Egundoko atzer-aurrera dabill gaur kamiñuan.

hamaika ikusteko jaio ginen!

Bihotzerako

Gaetan Terrasek, frantses arkeologo batek, "Top Phono" gailu elektronikoa asmatu du. "Top Phono"ak gaixoaren bihotzeko taupadak eta biriketakoak entzuteko balio du. Oraindik proba fasean dagoen estetoskopioa, jatorri bat baino gehiagoko soinuak bereizteko gauza da. Hori dela eta, biriketako gaixotasunen diagnostiko fidagarriagoak egiteko bidea ere ematen du.

Farmaziak

Eguakitza 22:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Zapatua 23:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Domeka 24:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Astelehena 25:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Martitzena 26:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguaztena 27:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguena 28:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Ogia

Domeka 24: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	10
DYA	943 76 71 51
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 52
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 20 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 37
PESA	902 10 12 00
Taxiak	943 76 16 59
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 22
Igerilekuak	943 76 20 57
Kultur Etxea	943 77 91 59
Liburutegia	943 77 91 52
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 59

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 53
Erregistroa	943 76 13 59
Jardun	943 76 36 59
Jubilatuena Etxea	943 76 27 40
Postetxea	943 76 26 59

zorion agurrak



Andres Alzelai
Urriaren 23an
74 urte. Urte askotarako!
Familiakoak, Oihana eta Amaia.



Mikel Arkauz
Urriaren 22an
5urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Eneko Muguruza
Urriaren 26an
12 urte. Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia Julien.



Monika Alberdi
Urriaren 23an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eneko Lizarralde
Urriaren 23an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Prieto
Urriaren 28an
8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Andoni Najera
Urriaren 27an
4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Etxezarreta
Urriaren 25ean
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Leire Gantxegi
Urriaren 24an
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maider Martin
Urriaren 22an
14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iñaki Aranzabal eta Beni Martin
Urriaren 23an
23 urte ezkontuta.
Urte askotarako!
Nekane eta Iñaki.

hildakoak

BERGARA

Ignacio Amosarrain Usabiaga

Urriak 14, 50 urte

Josefa Etxezarreta Aranzadi

Urriak 15, 93 urte

Florencio Pombar Fernandez

Urriak 16, 75 urte

Felisa Rodriguez Carrasco

Urriak 18, 45 urte

Gloria Sanchez Ramirez

Urriak 17, 86 urte

Casimiria Luarizaristi Iñarra

Urriak 20, 76 urte

jaiotakoak

BERGARA

Irene Jauregi Velasco

Urriak 8

Aitziber Iturriaga Agirre

Urriak 11

Aitor Sansiñena Aranzabal

Urriak 14



Mikel Azkarate
Urriaren 27an
urtebete.
Urte askotarako!
etxekoak.



Judith Sagasta
Urriaren 23an
2 urte. Urte askotarako!
Shere, Yasmina, Aitor eta anaiaik.



Yune Nogueiras
Urriaren 24an
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Lola Lamas
Urriaren 24an
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Datorren asteko alean,
URRIAren 29a
eta **AZAROAREN 4a**
bitartekoan
zorion agurrak
argitaratuko ditugu.

ESKER ONA

Jose Ignacio Amosarrain Usabiaga

“Xasio”

Bergaran hil zen
1999ko urriaren 14an,
50 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Gloria Sanchez Ramirez

Bergaran hil zen
1999ko urriaren 17an,
86 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Maria Pilar Garaikoetxea Etxaniz

Lehen urteurrenoko meza
domekan, urriak 24,
goizeko 11:30etan, Santa Marinan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKELA

Felisa Rodriguez Carrasco

Bergaran hil zen
1999ko urriaren 18an,
45 urte zituela.



*Bere alaben lagunok bat egiten dugu
sendikoen saminarekin.*

ANTZERKIA

► Esteve y Ponceren **"Los hermanos pirracas en Nemequitepa"**, urriaren 29an Elorrión, 22:30etan.

MUSIKA

► Jam. Gaur, eguakitzia, **Berri txarrak eta Las ratas** taldeak 22:00etan; bihar, zapatua, **Betagarri eta Dikers** taldeen kontzertua ordu berean eta domekan, **Lagwagon, Bouncyng souls eta Avail** taldeen emanaldia 21:00etan.

► **Ferruccio Bartoletti**ren organo kontzertua bihar, hilak 23, 20:00etan San Pedron.

► **Petti eta Piztiak** bihar, hilak 23, 22:30etan Elgetako Gaztetxean.

ERAKUSKETAK

► **Bedelkarrek antolatutako margo erakusketa** bihar, zapatua, goizez San Martin plazan. Mari Paz Alustiza, Edurne Eraña, Juanjo Altuna eta Marino Gonzalezen ikasle- lanak ikusgai.

► **Ramon Aranzabalen margoak** Arrasateko Harresi aretoan (Iturriotz, 35) domekara arte, zapatu eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

► **Manu Muniategiandiko-**

ERAKUSKETA

Euskal Herria eta dinosauruak

Non: Kultur Etxean.

Noiz: urriaren 31ra arte.

Ordutegia: astebarruan, 18:00-21:00; zapatu eta jaiegunetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

Aranzadi Zientzia Elkarteko geologia saileko partaide diren Jose Angel Torresek eta Luis Ignacio Vierak prestaturiko "Euskal Herria eta dinosauruak" erakusketa ikus daiteke egunotan Kultur Etxeko aretoan. Erakusketa zientifiko eta didaktiko honetan kretaziko garaian Euskal Herrian ziren dinosauruen aztarnak erakutsiko dira. Duela 120 milioi urte Euskal Herriaren zatirik handiena itsaso tropikal batek estaltzen zuen; itsasoan koralezko arrezife ikusgarriak zeuden orduan eta hegoaldera iberiar kontinentearen kostaldea zabaltzen zen. Gaur egungo Errioxa, Burgos eta Soria eskualdeetan, dinosauruek milaka eta milaka aztarna grabaturik utzi zituzten.

Koral, krustazeo, molusku eta arrainen fosilen aztarnen arabera, garai hartako klima gaurkoa baino epelagoa zela dakigu, eskualde tropikaletan gaur dutenaren oso antzekoa.

Erakusketan jarritako 11 bitrinetan dinosauruek utzitako aztarnak ikusi ahal izango ditugu. Era berean, Kultur Etxera hurbiltzen direnek gaur arte aurkitutako bi dinosauru errioxarren (*Hypsilophodon* eta *Baryonyx* izenekoak) aztarnak ezagutzeko aukera izango dute, erakusketa honetan aurreneko aldiz jendeaurren erakusten direnak, hain zuzen ere.

Erakusketarekin batera, datorren egunean, hilak 28, Jose Angel Torres eta Luis Ignacio Vieraren diapositibak emanaldia ikusi ahal izango da 19:00etan.



Megalosaurus baten burezorra, ikusgai dagoen piezetako bat.

etxearen margoak zapatura arte Tolosako Aranburu jauregian.

LEHIAKETAK

► **Argazki rallya Bergaran** domekan, urriaren 24an.

Edozein afizionatuk parte hartu ahal izango du, egunean bertan 8:30etatik 9:30etara Pol-Pol Argazki Taldeak Zabalotegiko 5. zenbakian duen lokalean izena emanez. Gaiak eta ibilbidea orduan eza-gutaraziko dira. Sari banaketa azaroaren 19an egingo da.

IKASTAROAK

► **Pintura ikastaroa** (hasierako eta hobekuntza mailak) Bearteko lokalean. 656 72 44 49.

► **Pintura ikastaroa**, 6-12 urte bitartekoei zuzenduta.


Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE



PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK
• ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefona: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

zapatu goizetan 10:00etatik 13:00etara Bearteko lokalean, Bolun. Izen-ematea 696 57 79 45 zenbakira deituz egin daiteke.

DEIAK

► **Jubilatuaren kultur hamabostaldia:** "Pakea ekarri gatazkara" eskolarteko lehia-letaren **sari banaketa** gaur, eguakitza, 19:30etan Miguel Altuna Institutuan, Orfeo Trikiaren partaidetzarekin. Martitzenean, hilak 26, ordu eta toki berean, Joseba Arregi parlamentarioak "Gatazkak pakean bizi" izenburuko **hitzal-dia** emango du. Eguaztenean, hilak 27, "La señorita mama" **antzezlan**a 19:30etan Antzuolako zine aretoan. Eguenean, hilak 28, "Gatazka eta pakea: gizakien esperientzia" izenburuko **mahaia-ingurua** 19:30etan Miguel Altunan. Partehartzaileak: Pedro Luis Arias EHUko irakaslea, Joseba Arregi parlamentarioa eta Jose Antonio Pagola bikario nagusia.

► **Bergarako Caritasek** haibat material gordetzeko lokal bat behar du denboraldi baterako. 943 76 72 77.

► **Mendi irteera Lagran-Albainara** domekan, hilak 24. Irteera goizeko 7etan Frontoitik. Txartelak Pol-Pol tabernan salgai.

► **Odol ateraldia** egingo da eguaztenean, urriak 27, arra-

tsaldeko 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **"Elgean zentral eolikorik ez"** lemapean manifestazioa domekan, hilak 24, 12:00etan Eskoriatzan.

► **Itoitzeko solidarioekiko** elkartasun taldeak elkartasun ekimen zabalagoak antolatu eta protesta ekintzak koordinatzeko dei egiten du urriaren 30ean, 16:00etan, Iruñeko Gaztetxean egingo den bileran parte hartzeko.

KINTADAK

► **1962an jaiotakoen afaria** azaroaren 6an Antxonin, 21:00etan. Izen-ematea bertan.

► **1940an jaiotakoen afaria** azaroaren 13an Antxonin jate-txean. Izen-ematea eta argibideak 943 76 45 75 (Begoña) eta 943 76 34 36 (Mari Tere) telefonoetan.

► **1955an jaiotakoen afaria** azaroaren 13an Azpeitxi jate-txean. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Frontoiko tabernan edo Azpeitxi jate-txean.

► **1959an jaiotakoen afaria** azaroaren 20an Antxonin jate-txean. Izen-ematea bertan.

► **1946an jaiotakoen afaria** azaroaren 27an Tartufo jate-txean. Joan-etorria egiteko autobusa izango da. Izen ematea: 943 76 35 51 (Begoña).

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

American pie
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

El año que murio Elvis
Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Celos
Eguakitza: 22:00.
Un papa genial
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:00.

EIBAR. Zuzendak

El sueño de una noche de verano
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

El amor apesta
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

Un papa genial
Zapatu eta domeka: 17:00.

ONATI. Santana
Eyes wide shut
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELORRIO. Arriola

El secreto de Thomas Crown
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
Hana-bi
Eguena, zine-kluba: 20:15.

AMERICAN PIE

Zuzendaria: Paul Weitz.
Aktoreak: Jason Biggs, Shannon Elizabeth, Alyson Hannigan.
// ≥ 18 urte.

Estatu Batuetan arrakasta handia lortu du takilan Paul Weitzek zuzendutako komedia honek. Institutuan ikasten ari den lagun talde batek, graduazio eguna baino lehen, birjinitatea galtzeko promesa egin du baina hori betetzeak uste baino buruhauste gehiago ekarriko die. *Antz* filmeko gidoiariak gazte publikoarentzat idatzitako istorioa.



EL AÑO QUE MURIO ELVIS

Zuzendaria: David Keating.
Aktoreak: Catherine O'Hara, Christina Ricci, Gabriel Byrne.
// ≥ 18 urte.

Gabriel Byrne aktore ezagunak eta zuzendariak berak idatzitako komedia zine-klubean. 1977ko udan Elvis errege hil da eta unibertsitatera joaterik izango ez duen 17 urteko gazte batek, lagun batekin batera, neska ederrenekin ligatzeko plan bat asmatuko du. Hala ere, nahiko bitxia den bere familiaren erruz, bere planak porrot egingo du.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

AZPEITXI

Jatetxea

Azaroaren 13 behea ☎ 943 76 55 00

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA

Jose Antonio Pagola Gipuzkoako Elizbarrutiko bikario nagusiak hasiera eman zion joan zen eguenean Antzuola eta Bergarako jubilatuek antolatutako kultur hamabostaldia. Miguel Altunako aretoa jendez gainezka zegoelarik, Pagolak gizakiari berezkoak zaizkion gatazkak biguntzeko klabeak aztertu zituen.

G. Gatazka ezinbestekoa zaigu gure bizitzan?

E. Gure bizitza derrigorez gatazkaz beteta dago, ezin dugu bakean bizi. Aurrera egiteko ere normala da tentsioa, konfrontazioa. Gure barruan ere kontraesanak ditugu askotan. Bake eza hori gure barruan somatzen da. Naturarekin ere gatazkan gaude, eta horren aurrean ekolojismoak oreka lortu nahi du. Oso inportantea da jenerazioen arteko konfliktua ere. Gure artean ere, kultura mailan, gatazka dago; aspalditik daude kokatuta, herri honetan, tradizio euskalduna eta erdalduna. Bakoitzak bere artea, folklorea, historia, hizkuntza edo sensibildadea dauka eta horrek ere gizartean eta elizan bertan ere gatazka asko sortarazi ditu. Ekonomi mailan, orain ez da gehiegi aipatzen baina klaseen arteko borroka dago eta politika mailan gatazka izugarria daukagu; azken urteotan politika mailako gatazka horrek baldintzatu egin ditu beste gatazka guztiak.

G. Gatazkari behar bezala egiten diogu aurre?

E. Gatazka guztiak ez dira txarrak, aberasgarriak ere gerta daitezke gizakiak aurrerapausuak eman ahal izateko. Gazteek gizarte guztietan tentsioak sortarazten dituzte eta hori ere ez

JOSE ANTONIO PAGOLA
Gipuzkoako Elizbarrutiko bikario nagusia

“Gure artean polemika asko eta elkarrizketa gutxi dago, zoritxarrez”



Jose Antonio Pagola, joan zen egueneko hitzaldiko une batean.

da txarra, hori gabe ez genuke sekula aurreratuko. Gazteen kreatibitatea eta askatasuna ito egiten badugu, txarto gabiltza. Helduek lortu dutena alde batera uztea ere ez da ona. Normalean gatazkaren gainean inpresio oso negatiboa dugu, gatazkak menperatu eta ezabatu egin behar direla uste baitugu eta ez da horrela.

“Gure bizitza gatazkaz beteta dago, ezin dugu bakean bizi. Aurrera egiteko ere normala da tentsioa, konfrontazioa”

Bestalde, politika mailan esaterako, askotan pentsatzen dugu politikoa izanagotzen direla guri bakea ekarriko digutenak. Politikoei intereseak bilatu behar dituzte baina bakea ez da etorriko gure jarrera pertsonala eta kolektiboak aldatu gabe.

G. Zer egin daiteke gatazka egoerak biguntzeko?

E. Batez ere gure artean beharrezkoa da elkarrizketarako kultura bat. Azken urteotan beste kultura bat bultzatu da: indar kulturala. Batzuk sinisten dute biokultutzian, indarkerian, eta konfekturatu behar gara elkarrizketaren kultura beharrezkoa dela, benetako problemak ez direlako indarrez konpontzen. Elkarrizketa horrek eskakizunak ditu: ez da nahikoa esatea ni elkarrizketazale, demokrata edo progresista naizela. Elkarrizketara bakoitza bere egiaekin, bere planteamenduetan irtetzen da eta lortu behar da ea ulertzen duzunik bestearen planteamendua. Eta ikusi beste horren planteamenduan ea egia bat dagoen, justizia edo arrazoizko gauzaren bat eta bion artean ea lortzen dugun akordiorik guztion onerako. Zoritxarrez gure artean polemika asko eta elkarrizketa gutxi dago. Polemika borroka esan nahi duen polemika hitz grekotik dator polemikan egia baino arrazoi menperatzea bilatzen da. Elkarrizketan, benetako egia eta arrazoizko argumenduak bilatzen dira.

G. Zein da elizaren perra gatazka egoeretan?

E. Eliza gizarte honetako indarretako bat da. Momentu batzuetan oso inportantea da barkamena bilatu bezala. Hemen zeinek ez du eskatu behar barkamena? Elkarrizketarako eta barkamenerako balio horiek ezak kezitu behar ditu.



Aurreikusitako epeak betetzen badira, urte hasierarako botako dute geltoki zaharra.

Beheko estazioko etxea ez botatzearen aldeko ahotsak

Kapirixok protestaldia deitu du zapatarako plazan

Lehenago trenbidearen beheko estazioko etxea botatzeko gero eta gutxiago geratzen denean, eraikuntza botatzearen kontrako oihukak entzun dira. Trenbidearen lagunen hiru elkartetako kideak Victoriano Gallastegi alkatearekin bildu ziren martitzenean eta Kapirixoko elkartek kontzentrazioa eta firma bilketa egingo du zapatu eguerdian San Martin plazan. Bestalde, etxea botatzearen aurka azaldu da egunkari batean argitaratutako gutun baten bitartez, garai batean Ferrocarril Vasco-Navarro enpresako langilea izan zen Marcial Moreno bergararra.

Trenbidearen aldeko Azpeitia, Donostia eta Iruñeko elkarteetako ordezkariak

beheko estazioko etxea kontserbatzea eta dagokion birgaitze lanak egitea eskatu zieten martitzenean Bergarako alkateari. XIX. mendeko arkitektuta industrialaren erakusle argia izanda, etxea botatzeko hartutako erabakiaren kontra azaldu ziren trenbide zaleak eta Bergaran bertan lehenago zerrajerako laminazio pabilioia gordetzeko egindako ahalegina pini zuten eredu moduan. Trenbidearen aldeko elkarteetako ordezkariak beheko estazioko etxeari eusteko eskatzeko txostenak Gipuzkoako eta Arabako diputazioetara eta Eusko Jaurlaritzara bidali dituztela aurreratu zuten.

Victoriano Gallastegi alkateak, bestalde, eraikuntza

Ibaragari kalean etxe berriak egiten ari diren enpresa sustatzaileena dela eta etxea erosteak 400 milioi pezetako kostua izango lukeela esan zien trenbidearen aldeko elkarteetakoiei.

KAPIRIXOREN FIRMA BILKETA

Beheko estazioko geltokia bota ez dezaten eskatzeko protesta ekitaldirako deia zabaldu du Kapirixok zapatarako eguerdiko 12etarako San Martin plazan. Deba Garaiko ondarea babesteko elkarteak BERRIGARARA igorritako idatzi batean esaten denez, Vasco-Navarro trenbideko geltokia botatzen badute, "Bergarako historiaren zati bat desegingo duen astakeria burutuko da".

Emakume bergararra hilik kamioi batek harrapatuta

F.R.C. 45 urteko

emakume bergararra hilik gertatu zen astelehen goizean, kamioi baten karga-kutxak eragindako zauri larrien ondoriz. Ezbeharrak goizeko 7:45etan gertatu zen Zubieta kaletik Bideberrirako bidegurutzean. Ermuako enpresa bateko kamioi batek Inferno-kuako bihurgunean maniobra egiten ari zenean harrapatu zuen espaloian zegoen F.R.C. emakumea eta paretaren kontra aplastatu zuen kamioaren karga-kutxarekin. Kamioi gidariak ez ei zuen emakumea ikusi. Emakumeak buruan zauri larriak jaso zituen eta erreskate zerbitzukoak hogein minutura agertu baziren ere, Arrasteko ospitalera eraman zutenerako hilik zegoen.

Ainhoa Arbelaitz Osintxuko auzo alkate aukeratua

Astebukaeran egin

ziren Osintxun alkatea aukeratzeko bozketak. Guztira 174 boto zenbaitu ziren, hautesleen %48 gutxi gora-behera eta Ainhoa Arbelaitzek jaso zuen botorik gehien. Ondorioz, bera aukeratu zuten Osintxuko auzo alkate legealdi osorako. Aurreko bi legealdietan Josu Agirrezabal izan da Osintxuko alkatea. Ainhoa Arbelaitzek 158 boto jaso zituen.

Udalaren zerbitzuak %2 igoko dira batazbeste datorren urtean


Udalarentzat defizitarioak direnak gehiago igoko dira

Datorren urterako Udal ordenantza fiskaletan %2ko igoera onartu zuen Udalbatzak astelehenean EAJ, EH, EA eta PSE-EEko zinegotzien aldeko botuekin. PPko zinegotzia ez zen Plenoan izan. Udaleko zergak, tasak eta prezio publikoak, orokorrean, %2 igoko dira 2000. urtean, defizitarioak diren zerbitzuak izan ezik, hauek, bataz beste %2,4 igoko baitira.

Datorren urteko Udal ordenantza fiskalen igoera zehazterakoan KPIren aurreikuspena hartu da kontuan. Madrileko gobernua aurreikusi du urte amaieran KPI %2,4 inguruan ibiliko dela. Bestalde, 1999rako iazko aurreikuspena %2,1 izan zen baina, azkenean, 1,4 puntutan geratu zen. Honenbestez, iaz aurreikusitako KPI eta azkenean geratu zen benetako indizearen artean Udalaren aldeko desfasea izan zenez, urte amaierarako aurreikusi den KPI baino igoera txikiagoa aplikatuko zaizkie datorren urtean Udal ordenantza fiskalei, hau da, bi puntuko igoera.

DEFIZITARIOAK DIREN ZERBITZUAK

Orokorrean, esan bezala, %2ko igoera izango bada ere, Udalarentzat defizitarioak diren zerbitzuetan salbuespenak egingo dira. Horrela, Igerilekuan, Kiroldegian, edota Udal Kirol Zer-



Labegarietako kiroldegiko tasak %2,4 igoko dira datorren urtean, astelehenean Udalbatzak onartu zuen moduan.

bitzuak antolatzen dituen ikastaroetan-eta, %2,4 igoko dira tasak. Igoera bera izango dute eguneko zentruak, etxez-etxeke zerbitzuak (aurrerantzean 865 pezeta ordu kostako da) eta Oxirondoko azokak. Horretaz gain, kanposantuko tasak %5 igoko dira, zaborra %3 (Deba Garaiko Mankomunitateak proposatuta) eta estolderia %6,9. Esan behar da udaz geroztik, zaborraren eta uraren erreziboak ba-

koitza bere aldetik kobratzen direla. Uraren errezibon ura eta estolderia jasotzen dira. Urak ez du igoerarik izango gastuak autofinantziatu egiten direlako, baina estolderia %6,39 igoko denez, erreziboari %4,02ko igoera aplikatuko zaio.

Aipatu dugun bezala, kanposantuko tasak %5 igoko dira, Udalarentzat zerbitzu hau oso defizitarioa delako. Esaterako, bost milioi

pezetako defizita izan zuen iaz zerbitzu honek eta tasen bitartez kostu osoaren %45 ordaindu zen.

Bestalde, obra baimenagatik aurrekontu osoaren %5 ordaindu beharko da aurrerantzean ere. Zentzu honetan, obra baimena eskuratzegatik ordaindu beharreko zerga milioitik gorako kopurua bada, epeko ordaintzeko aukera izango da, baina interesak merkantuan daudenak baino altuagoak izango dira eta, praktikan, ez du merezi izango zatika ordaintzea.

TXAKURTEGIA: ZERBITZU BERRIA

Oraindik orain Udalbatzak onartu duen etxeke animaliak edukitzea arautzen

Igerilekuko, kiroldegiko eta azokako tasak 2,4 igoko dira eta igoera bera izango dute eguneko zentruak eta etxez etxeke zerbitzuak, defizitarioak direlako

Uraren eta zaborraren erreziboak

	1999	Igoera	2000
URAREN ERREZIBOA			
Ura	3.320	% 0,00	3.320
Estolderia	940	% 6,39	1.000
BEZ	272	% 6,62	290
Mentnimendua	251	% 45,42	365
Guztira	4.783	% 4,02	4.975
ZABORRAREN ERREZIBOA			
	1.530	% 3,00	1.575

duen ordenantzaren arabera, hiru tasa berri ezarriko dira datorren urtean: animalia kaletik jasotzeagatik 2.000 pezeta, animalia txakurtegiatik edukitzeagatik 450 pezeta eta animalari uko egiteagatik 20.000 pezeta. Bergarako Udalak hitzarmena sinatuta dauka Elurra txakurtegiarekin ka-

lean jasotzen diren txakurrak bertara eroteako.

BESTE PREZIO BATZUK

Udal jabari publikoa okupatzeagatik kuota guztiak %2 igoko dira datorren urtean eta zirkoa jartzeagatik, esaterako, 44.900 pezeta ordainduko da eguneko. Bestalde, kalez kaleko salmen-

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga


Azken urteotako igoearen bilakaera 8-12 cv fiskal bitarteko 1.600 cm³ arteko autoentzat.

1996	7.880 PTA
1997	8.165 PTA
1998	8.335 PTA
1999	8.505 PTA
2000	8.675 PTA

Elbarrituen salbuespenari dagokionez, salbuespenaren onuradun izateko Bergaran erroldatua egotea beharrezkoa izango da.

tarako postuak lurzoru publikoan jartzeagatik, metro karratuko 140 pezeta ordaindu izan da orain arte. Datorren urtetik aurrera, berriz, 240 pezeta ordainduko da metro karratuko. Igoeraren arrazoia gaur eguneko karga-tasa erabat desfasatuta zegoela da eta tarifa eguneratzea erabaki du Udalak.

Amaitzeko, esan dezagun, diru bilketari dagokionez udal tributu guztietan 500 pezetatik beherako erreziboak ez kobratzea eta dirubilketa lana errazteko asmoz, ahal denean kopuruak durora borobiltzea erabaki duela Udalak. Esaterako, 523 bada 525 kobratuko da; 522 bada, berriz, 520.



Mariaren Lagundia
Ikastola
200. urteurrena

Mariaren Lagundia Ikastolako Topaketa Eguna

Nortzuk?

Ikasle obi, irakasle eta gurasoak.

Noiz?

Azaroaren 20an.

Non?

Mariaren Lagundia Ikastolan.

Egitaraua:

11:00: Harrera.

11:30: Diaporama eta ikastolara bisita.

13:00: Elizkizuna.

14:30: Bazkaria.

18:30: Agurra.

Bazkariaren prezioa:

3.500 pezeta.

Oso garrantzitsua da mahaien banaketarako apuntatzerakoan **jaioturtea adieraztea.**

Bazkarirako izen ematea ondorengo kontu korrenteetan dirua sartuz egin daiteke:

Euskadiko kutxa: 3035 0009 11 0091053963

Kutxa: 2101 0070 86 0122830987

Izena emateko azken eguna: azaroaren 10a

Mariaren Lagundia Ikastola, Espoloia 1.
Tf. 943 76 25 40.

Berrigara

384 zenbakia.
1999ko urriaren 22a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria:

Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Monika Belastegi.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketa:

Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mariipi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:

Miguel Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Gorka Elortza.
Komikiak: Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:

Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Rafa Gallastegi.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

■ gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigara@topagunea.com. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

INDULTUA BEHEKO ESTAZIÑUARENTZAT

Denbora gutxi geratzen zaio, orain autobus geltoki gisa, pertsona askoren joan etorriak ikusten dituen garai bateko "Vasco-Navarro" trenbideko geltokiari.

Dudarik gabe, beste toki askotan egin den bezala, estazio zaharra errespetatuz, bere ingurua urbanizatu zitekeen. Baina ez da horrela-

korik egin. Ondorioz, Bergarako historiaren zati bat desegino duen astakeria bat burutuko da.

Ondarea, denon aberastasan eta ondasun izanik, askotan herriko bizilagunen iritziaz jaramonik egin gabe gestionatzen da. Sarri interes ezkutuak izaten dira hirigintza eta azpiegitura egitasmo handien irizpide nagusiak, ondarearekiko axo-

la gutxi erakusten dutelarik. Honengatik guztiarengatik, Kapirixo Elkarteak deialdi bat egin nahi du Bergarako herriari: datorren larunbatean, urriaren 23an, eguerdiko 12etan San Martin plazan bilduko gara estazio zaharra bota ez dezaten protesta egiteko.

Kapirixo Elkarte

BERRIGARAREN OHARRA

Berrigara **GIDA 2000** prestatzen ari garela eta, honako kasu hauetan zaudeteno **BERRIGARAKO 943 76 03 97** telefonora deitzea eskertuko genizueke:

- Berrigara GIDA 99an zuen telefonorik **agertzen ez bada** eta 2000.ekoan agertzea nahi baduzue.
- Berrigara GIDA 99an zuen **telefono zenbakia oker** agertzen bada.
- Zuen **telefono zenbakia aldatu** egin baduzue.
- Berrigara GIDA 99an zuen **helbidea oker** agertzen bada.
- Zuen **helbidea aldatu** egin baduzue.
- Berrigara GIDA 99an zuei buruzko beste edozein datu **oker** agertzen bada edo **aldatu** egin nahi baduzue.

Mila esker.



■ tira biraka: alex ugalde



■ atrebentzia ezpada

Urte amaieran beheko trenbidian geltokixa botako da. Zure ustez, edifizioa mantendu egin beharko litzake?



Macario Casquero

Mantentzia gustatuko litzake, nahiko etxe egin ditue eta. Nora goaz horrenbeste etxebizitzakin? Edifizio zaharrak errespetatu eta konpondu egin behar die.



Alicia Vazquez

Edifizioa zaharra denez, mantendu egin beharko litzake. Holakuak errespetatzen dihardue beste leku batzuetan eta hemen be berdin beharko leuke.



Juan Carlos Zubia

Hasiera batean mantentziaren aldekoa naiz. Ikusi egin beharko litzake berrixa nolakoan dan baina zaharrak urteak dauzka eta badu bere historia.



Iñaki Elkoro

Berdin da niretako. Geltoki berrixa hoberako bada, hobeto. Zaharra hemengo gauza bat da baina etxiak egin behar badie...



Edurne Begiristain

Geltokia bertan mantentzia ondo ikusten dot. Edifizioa zaharra da eta badauka bere xarma. Konpondu ondoren, ondo geratu leike.



Dolores Heis

Aspalditik dago edifizioa hor eta nahiz eta etxiak egin edifizioa errespetatzia ez legoke gaizki. Geltokixa ondo dago dagon lekuan.

■ bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.

ZURRADEROKO ATZEALDEA

Jose Garciak deitu digu aste honetan BERRIGARARA, Zurradero kaleko atzealdeko (ibaira begira) egoera salatzen. Josek dioenez, ikasle asko biltzen dira bertan ha maiketako egiteko baina kalea zaborrez beterik lagatzen dute. Josek esan digunez, egia da zakarrontziak gainezka egoten direla behin baino gehiagotan baina hori ez da arrazoia kalea lagatzen duten bezala lagatzen. Josek ikasleei zaborrak batzeko eskatu nahi die, oso itsusia baita kalea paperez estalita ikustea. Era berean, Udalari, horrenbeste jende bokadiloak jaten egoten den tokietan zakarrontzi gehiago jartzeko eskakizuna egin nahi dio.

Bolu
liburutegia

Enmarkazioak
Ispiluak neurrira
Zurezko artikuluak
Bergarako oleo eta
lumatroak

Koldo Elizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

■ adituen esanetan

Hormonen garrantzia

Askotan entzuten diren hormonen funtzioetako bat gure gorputzaren elikadura eta energi edukin konstante eta orekatu bat mantentzearena da. Hormonak, modu orokor batean azaltzeko, gure nerbio sisteman bertan sortzen edo eta estimulo baten aurrean nerbio sistemaren kontrolpean beste organu batzuetan sortzen diren elementoak dira, eta metabolismoan aldaketak eragiten dituzte.

Elikadura egoerarekin zerikusi handia du, adibidez, intsulina deituriko hormonak. Bere lana odoleko glukosa kontzentrazioa mantentzea da (altua denean segregatzen da), baina lipidoen eratzea ere potentziatzen du. Horrela azukretsua elikagai asko hartzean, energia gehiegi hartzeaz gain lipidoen eratzea bultzatzen da. Tiroidear hormonek ere garrantzi handia daukate, metabolismoa kontrolatzen baitute, horrela sekrezio txikia badago garen fisiko eta intelektualean arazoak daude eta metabolismoa txikitzen denez lipidoen akumulazioa eman ohi da.

Adrenalina hormona egoera fisikoki estresanteetan segregatzen da, tentsio arteriala igotzen du eta glukosa energia lortzeko mobilizatzen du. Horrela berez urduria den jendeak energia era errezago batean erretzen du.

Hormona sexualak, estrogenoak eta progesteronak hain zuzen ere, paper garrantzitsua daukate emaku-



BITTOR RODRIGUEZ

Elikagaien teknologoa

"Elikadura egoeran garrantzitsua den hormona leptina da; nerbio sistemari lipido edukinaren informazioa ematen dio"

meetan. Lehenak garen fisikoa eta termogenesisia (energia "erretzea" beroa lortuz) bultzatzen du eta bigarrenak lipidoen akumulazioa haurdunaldian. Glukokortikoideak, bestalde, glukosaren erabilpena energi iturri bezala bultzatzen dute egoera konkretuetan.

Baina ezagutu berri den eta elikadura egoeran garrantzitsua den hormona leptina da, berau gure gantz ehunean eratzen da eta nerbio sistemari gorputzaren lipido edukinari buruzko informazioa

ematen dio. Horrela gantz ehunean lipido asko gordetzean hormona hau segregatzen da eta nerbio sistemak erantzun bezala energi gastoa handitzen du eta gose sentsazioa jaisten du. Hormona hauen edo eta berarekin erlazionaturiko mekanismoen arazoak obesitatea eragin dezakete; jatorri endokrinologikoko edo jatorri genetikoko obesitatea.<



Adrenalina egoera fisiko estresanteetan segregatzen da.

■ bergarako gordailutik

ELIZTARREK ORDAINDU ZITUZTEN ELIZETAKO OBRAK

Imanol Sorondo

Askotan entzuten da "indianoak", hemendik Ameriketara joandakoak alegia, ordaindu zituztela gehienbat elizetako obrak. Hala izango da batzuetan, baina Bergaran dauzkagun argibideen arabera, bertako elizak ez ziren Ameriketako diruekin altxatu eta egokitu, eliztarrek emandakoekin baizik. Aldez aurretik esan dezagun hainbeste lanen, eta hain zaharren, aurrekontu eta ordainketa guztien zehaztasunik ez daukagula. Nola? Baina dauzkagunen arabera ariko gara. Nola ordaindu zituzten?

Modu askotako "limosnen" bidez, bitxikeria bezala ipiniz, behin, 1570. urtean, alkate jauna, abade maisua, eta beste agintari batzuk ibili ziren eskean kalez-kale, eta 87 dukat jasoz zituzten; geroago, urteko ostiral guztietan egiten zen eskakizun bat kaltetan, eta Animetako kofradiak Santamainan zeuzkan dirua biltzeko kutxatilen artean bat Zubietako tabernakoa zen. Beste batzuetan eliztarren batek "eskupeko" handiago bat ematen zuen. "Hamarrenetatik eta primizietatik" ere ateratzen zen etekina. "Testamentuetan" lagatakoetatik. Elizan zeuden "hilobi baten salmentatik". "Kofradien" laguntzatik. "Auzolanen" aurreratutakoetatik. Jai berezietan eta meza berrietan jasotako "ofrendetatik". Gutxi batzuetan "jeneroa" ere eman zen: garia, artoa, erlauntza (erle-ontzi), alea, ... Inoiz "isunen" (multen) dirua elizari emanda. Interes eta guzti "ordaintzekotan eskatutakoekin". Ardoan ipinitako "zizaren" bidez; pitxarreko 6 marabedi adibidez. Sevillan eta beste hiri batzuetan bizi ziren bergararrak ere dirua edo erregalo bat egin zuten batzuetan.

Behin bakarrik aurki daiteke Bergarako artxiboetan "indianoei" diru laguntza bat eskatzeko kontua; gainera, ez dakigu jakinarazi zitzaizten ere. Eliztarrek ordaindu zituzten, beraz, Bergarakoak.<

Maioratarrak txapeldun

Basalgoko lñarre baserriko Juan eta Jose Mari Maiora aita-semeak Estatu mailako abelgorrien lehiaketan lehen saria eskuratu zuten "Kapritxo" izeneko behiari esker, 5 eta 8 urte bitarteko kategorian. Domekan Altsasun egindako txapelketan pirenaika arrazako 250 behi izan izan ziren lehian eta Maioratarrek lehen saria lortu zuten euren kategorian. Sari gi-

sa, trofeoa eta dirusaria jaso zuten. Ez da lortzen duten lehen saria; urriaren 4an, Gernikan, Euskadiko Txapelketa irabazi zuten "Linda" behiari esker, 2,5-2,5 urte bitarteko behien kategorian. Gernikan bertan zekorrik onenaren saria eskuratu zuten duela bi urte eta aurten Tolosan eta Ordizian Maioratarren behiak eta bigantxak saritu dituzte. Zorionak!!



Oliver! arrakastatsua Gasteizen



Ofeoiaren Oliver! musikalak txalo zaparrada luzea jaso zuen zapatuan **Gasteizeko Principal antzokian** bildutako ikusleen partetik. Oliver! **Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren barruan** antzeztu zen eta **Nuria Espert, Adolfo Marsi-llach edota Juan Diego** ezagunekin batera, parte hartu zuen talde afizionatu bakarra izan zen. Zazpigarren aldiz antzeztu zen Oliver! zapatuan eta partaideen iritziz orain arteko emanaldirik onena izan zen Gasteizeko. Musikalaren kalitatea ikusirik, **ETBk interesa** azaldu du ikuskizuna grabatzeko, oraindik fetxa eta antzeztokia zehaztu barik dauden arren.

Pandero ikastaroa

Jardun elkarteak antolatutako pandero ikastaroan **38 lagun** ari dira aurtan. **Aitziber Gezalaga** antzuolarra da irakaslea eta ikasleek interes eta maila ona erakutsi dute orain arte. Ikasleetatik zazpi berriak dira aurtengo ikasturtean. Adin guztietako panderozaleak daude eta klaseak astelehen eta ostiral arratsaldeetan izango dira ekainera bitartean.



LASAITZEKO MASAJE IKASTAROA

(hastapena)

Garai txarretan lasaitzen ikasi.
Erabateko osasunarentzat lasaitasuna da
altxorrik handiena.

GAI ZERRENDA:

Informazio orokorra

- Nerbio sistema • Larritasun sintoma orokorrak • Musika eta lurrina

Nork bere burua lasaitzeko teknikak

- Masajea • Automasajea • Lasaitzea eta haurrentzako masajeak

(Haurrei eta gazteei lo egiten laguntzen die, azterketa garaietan batik bat)



Masajes
Mertxe
Masaiak

Egunak: Azaroaren 6an eta 13an

Ordua: 10:00-13:00 eta
15:00-20:00

Tokia: Mertxe Masaiak,
Kale zaharra, 42 behea

Emalea: Mertxe Alcalá
Argibideak: 943 78 01 71
telefonora deituta
(10:30-12:30 eta
15:00-21:00)

Plaza mugatuak




Solariuma



Hidromasajea



Lurrin bainuak



Masajea

ZERBITZUAK

Masaje terapeutikoa

- Giharreko tentsioak
- Artrosiak
- Lunbagoa
- Ziatika
- Tortikolisa
- Zaintiratuak
- Tendinitisa
- Idorreria
- ...

Zelulitiaren kontrako masajea

- Soberan dituzun zentimetroak kentzeko

Masaje neurolasaigarria

- Estresa
- ...

Kirol masajea

- Ariketen aurretik eta ondoren

Kirolak eragindako minak osatzea

Oinen tratamendua hidromasajearen bitartez

Zirkulaziorako masajea

- Barizeak
- Hanka nekatuak
- Nekea orokorrean
- ...

Erditu aurreko masajea

- Sabelean pitzadurak izateko
- Zirkulazioa hobetzeko
- Hantetako nekea eta barizeak ekiditzeko
- ...

Erditu ondorengo masajea

- Sabelaldea bere lekutik itzultzeko

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, **ANTZUOLA**. **Kazetaria:** Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 45. zenbakia. 1999ko urriaren 22a.

Urkulutik ura ekarri nahian


Udalak alegazioak aurkeztu dizkio Aldundiaren proiektuari

Udalak, joan zen urriaren 7ko Udal Batzarrean, Urkuluko urtegitik herrira ura ekartzeko proiektuari alegazioak aurkeztea erabaki zuen. Lehenago ere alegazioak aurkeztu zituen Udalak. Izan ere, proiektua ez zetorren bat herriko planifikazioarekin. Proiektu hura ez zen aldatu eta gaur egun askoz ere aldaketa gehiago egin beharrean dagoela adierazi digu Valen Moñux aparejadoreak.

Jadanik lau urte pasa dira Gipuzkoako Foru Aldundiak Urkulutik ura ekartzeko egin zuen lehenengo proiektutik. Garai hartan Udalak hainbat aldaketa proposatu zuen. Dirudienez "proiektua ez zen egokitzen Antzuolako lurzoru eta egin nahi ziren erakuntzetara".

Hori zela eta, Udalak alegazioak jarri zituen, baina proiektua bertan behera gelditu zen. Orain berriz ere heldu dio Aldundiak asmo horri, baina "ez du orduko proiektua aldatu. Eta lehen gaizki baldin bazegoen, orain aldaketa gehiago egin behar zaizkio". Hori azaldu digu Valen Moñuxek. "Gaur egun lehen egin barik zeuden eraikin batzuk daude, tartean Elay eta Camachok egindako handitze lanak. Horrez gain, Zurrategi garai hartan aurreikusita zegoen arren, proiektu berriaren ez da gaur egun dagoen bezala jasotzen. Baina eraikin horiez gain, beste proiektu batzuk ere ez dira aurreikusten, hala nola, Lizarraga auzoan egin behar diren etxe elkarri itsatsiak".

Orain Aldundiaren txanda da. Izan ere, alegazioak aztertu beharko ditu eta bere proiektua aldatu.



Aretxabaletan dagoen Urkuluko urtegia.

PROIEKTU ZAHARRA

Orain dela hamar urte Gipuzkoako Foru Aldundiak Antzuolako iturburuaren azterketa egin zuen. Herrian bi iturburu ditugu: Aitzagakoa eta Eztalakoa. Bigarren honen behin behineko erabilera izaten du, lehenengoak ur gutxi duenean eta antzekoetan. Aldundiaren ikerketaren arabera, Antzuolak "ez omen du ur-emari nahikoa". Dena dela, Valen Moñuxek esan digunez "praktikan baduela erakutsi du urte hauetan guztietan. Baina, bestalde, eta ikerketa harek zioenez, urari herrian

egiten zaion tratamendua ez da behar bezalakoa, nahiz eta arauak bete. Hori dela eta, Diputazioaren uren sanemendu eta banatze planean sartu beharra erabaki zuen Aldundiak. Horregatik ekarri nahi da ura Urkulutik".

Proiektua garatzen denean, Bergararik Antzuolarako ubidea egin beharko da Bergararaino bidea egina dago eta. Urkuluko urtegitik Bergarak, Arrasatek, Aretxabaletak eta Eskoriatzak hartzen dute ura. Urte batzuk barru Antzuolan ere Urkuluko ura izango dugu, beraz. ■

■ ■ ■
Aldundiaren proiektua egokitu beharra dago
ez baita herriaren itxurara egokitzen
■ ■ ■



Pantxikeren ikasgelakoak Hondarribian.



Asunen ikasgelakoak Hondarribian.

Herriko eskolako neska-mutikoak ikas-turtea hasi eta berehala hiru egunetako oportetara joaten dira aterpetxeetara. Aurten 1., 2. eta 3. mailako neska-muti-

Haurrak oportetan

koak Hondarribian izan dira eta 4., 5. eta 6. mailakoak, berriz, Barrian. Ondu baino hobeto ibili ziren, bestela ikusi ondoko argazki sorta!



Anastasiren ikasgelakoak Hondarribian.



Nagusienak, Barriako aterpetxean.

MOTZIAN

PERRETXIKO ERAKUSKETA

Urriaren 24an, domekan, Arrolak perretxiko erakusketa egingo du. Aurreko egunean batutako perretxikoekin egingo du erakusketa, hain zuen ere. Zapatuan hainbat perretxikozalek Araba aldera joko du perretxikoak batzera. Erakusketa Herriko plazan jarriko dute. Jateko ez direnak ere ezagutzeko parada izango da. Mahaiak egun osoan zehar egongo dira hantxe. On egin!



Tortila lehiaketa

Joan zen zapatuan egin zuten herriko neska-mutikoek tortila lehiaketa. Guztira zortzi taldek hartu zuen parte. Irabazleak lehenengo taldean: Jonge Bargiela, Eneko Mujika, David Fresno, Ainhoa Mujika eta Julen Larrañaga izan ziren eta bigarren, taldean Maialen Toledo, Miriam Morais, Susana Morcillo eta Agurtzane Mujika.

**LEKU-BERRI
MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

zabalo

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak

Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

Igor eta Txomin C.B.

**Margoak
orokorrean**


ANTZUOLA 609 157 131
BERGARA 609 150 164

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Udazken-neguko MODA



Bertarako telebistan eta aldizkarietan agertzen diren top model izarrak, Bergaran bertan inon baino dotore, hirain eta ederragoak baditugu? Txapela kentzeko modukoa, joan zen domekako moda desfilean, pasarela gainean aritu ziren guztiek erakutsitako grazia eta ausardia.

Bergarako Agirre, Bergara Piet, Cristina, Igarza, Ikusbi, Jauja, Laket, Manso Optika, Nerea, Subijai, Txiki-Laket eta Zatoiak, eta Gasteizko Dochy Novias eta Yazar Stil-ek aurtengo udazken eta negurako proposatzen dizkiguten moda erakusten digute bertako top modelak orrialde hauetan.



IKUSBI
JANTZIAK

Irala 5

Nerea
LENTZERIA



Simon Arrieta I



Espoloia 6



P. MANSO
Optika

Irizar 2

SUBITAI
Gazteentzako moda

Irizar 2




JAUJA KIROLAK

Irizar 3



Dochy Novias & Yazar Stil

Independenzia 20 & Diputazioa 8 GASTEIZ

AGIRRE Jantziak



Irizar 3




Barrenkalea 35 & Irala 5



Barrenkalea 4

CRISTINA
JANTZIDENDA



Arruriaga z/g



IGARZA
MERTZERIA

Irala 5

eskerrik asko

- modelo lanetan ibilitakoei
- antolatzaileei
- jam aretoari
- bertaratutako ikusle denei
- eta desfilea aurrera ateratzeko lagundu duten den-denei.



dendarion izenean.



Errepide ondoko atarietan argiak jarriko dira.

Errekalden berriz ere kexak

Errekaldeko bizilagunek berriz ere aurkeztu dute Udaletxean auzoan egin beharreko konponketen zerrenda. Udal ordezkariak adierazi digutenez "dagoneko hainbat lan egiten hasiak gara. Beste hainbat ezin dira egin aurrekon-

tuetan onartu gabe daudelako. Egin direnak mantenimendu aurrekontuarekin egin dira: argiak, jolastokia eta lorategiak. Asfaltoari dagokiona datorren urteko aurrekontuan onartu beharko da. Denadela, konponketak egingo dira".



Oliver! ikuskizunean ere antzuolarrak abeslari

Joan zen zapatuan Gasteizen antzeztu zuten Bergarako orfeoia *Oliver!* lana. Valen Moñuxek zuzentzen duen lan honetan antzuolarrek ere hartu zuten parte. Guztira bederatzi lagun aritu zi-

ren: Joseba, Andoni eta Iñigo Iparragire eta Unai Ormaetxea mutilak eta Uxue Alberdi, Ainhoa Garmendia, Maialen Legorburu, Iraitz Gastaian eta Garazi Larrea neskek.

Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon

1. Umien aittak (aitta eta ama) billeria dauke.
1.
2. Nekane, Imanol... etxeko seme danak alkartu ziren.
2.

Izen-abizenak eta telefonua:

bertako hizkeria



Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1. Unak egin dau. / 2. Etzidamu juango gara.
- Saritua: Maialen Legorburu**

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegian, **DATORREN EGUAKITZA BAIÑO LEHEN.** Erantzun zuzenen artian 5.000 pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren 3 ale zozketatuko ditugu hamabostero.



MUEBLES IGEA

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

Gotzon del Teso: Euskal Herriko auto telegidatuen txapelduna

“Probau barik ezin da ulertu zer dan”

Joan den astean Euskal Herriko auto telegidatuen txapeldun izendatu zuten Gotzon del Teso. Getxon jokatu ziren probak eta orain dela bi domeka izan zuen azkena. Gotzonek lau urte daramatza hobbi honekin eta orain Euskal Herriko txapelduna da 1:10 neurriko auto telegidatuekin.

N oiz hasi zinen auto telegidatuekin?

Orain dala lau urte. Jose Manuel Iturraspe bergararra laguna neukan eta haura be holako kotxien ibiltzen zan.

Orain 1:5 neurriko kotxiekin dabil bera, eta nik baiño suerte gehiago dauka kategorixa horretan.

Zer behar da honelako txapelketa bat irabazteko?

Erreflejo haundixak eta oso hotza izetia konduzitzen. Kontzentratuta egon bihar zara. Baiña suertia eukitzia inportantia da.

Nola izan zen txapelketa?

Sei karreretatik 5 puntu lortu zeikien. 1. eta 2. tokiak hirutan lortu nituan.

Asko balio du horrelako auto batek?

1:10 neurrikua 50.000 PTA gutxi gorabehera. Garbi euki bihar da holako kotxe bat ezala gabonetan umiei erregalaten jakiena bezelakua. Kotxe honek Formula 1eko kotxien teknologixa mailan dare. Bai kotxiak baita piezak pe denda espezializatueta erosten die. Mantenimentua ezta oso karua, desgaste gutxi eukitzen dabe ta. Baiña 1:5 neurriko kotxiak ordia karuaguak die, baita mantenimendua be.

Euskal Herriko txapelketaren ostean zer proba daukazu?

Oin 1:5 tamaiñoکو kotxiakin nabil.

Jun zan domekan be Getxon egon nitzan. Baiña kotxe horrekin ez nabil suerte asko eukitzen. Oiñddio eztoz probarik bukatzia lortu. Domekan be eurixakin transmisoria busti egin zan eta konpondu orduko berandu zan.

Zale asko dago?

Baietz uste dot. Munduko txapelketak pe badare, jun zan urtian esaterako bilbotar bat Hawaii egon zan prueba horretan. Españako txapelketak aurten Valentzian izan die, baiña datorren urtian Bilbon jokatu die eta parte hartuko dot.

Datorren domekan gaiñera Zaragozara jungo naiz “Españako Kopa” esaten jakon txapelketa. Suertia eukitzen bado, ondo.

Zer behar du honelako auto batek?

1:10 neurriko kotxiak oso sinpliak die: kanbixo automatikuak dauzka eta eskapia eukitta motorrak emoten daben dana aprobeztatzia da. Gasolina berezixa erabiltzen dabe eta Formula 1ean bezela “box-etan” sartu eta gasolina bota bihar jako karreran zehar. 70’80 km/or

duko egin leike. Erroberak pe zirkuiturako egokixak izan bihar die. Karrozerixiak pe neurri batzuk bihar dittu

Bizio bat da beraz?

Engantxatu egiten dau. Probau barik ezin da ulertu zer sentitzen dan holoکو kotxe batekin ibiltzen. ■



Auto honekin irabazi du txapelketa.

“Kotxe honek Formula 1eko kotxien teknologixa maillan dare”

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51



Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

Euskal
sukaldaritza

Eguneko
menua



DESKARGA
AUTOAK

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75

Ehiza sasoi

Pilarikan hasi eta azarora bitartean
herriko 550 lagun ehizan



Pilarikarekin batera ehizarako debekaldia jaso da.

Euskal Herrian ehizarako grina nahikoa hedatua da.

Bergaran, 550 ehiztari inguru daude aktiboan eta beste 200 bat erretiratuak.

Bergarako basoek eskaintzen duten ehiza ez da oso oparoa.

Hori dela eta, ehiztari batzuk bertan ehizatzen dute, baina gehiengoa beste komunitate batzuetara joaten da.

Argazkiak: Rafa Gallastegi

Betidanik egin izan den bezala, oraintsu, urriaren 12an, Pilarikarekin batera bukatu da ehizarako debekaldi osoa. Dena libratzen da, beraz, nahiz eta debekaldi orokorraren arauak nahikoa nahasiak dauden azken urteotan eta ezin izaten diren toki batzuetan ohiko piezak ehizatu. Aurten, Araban esaterako, debekaldi orokorra Pilarika egunean ireki bazen ere, erbia eta eperra ezingo dira ehizatu azaroren 1a bitartean. Gauza bera gertatu da Nafarroan. Honegatik guztiagatik esan ohi da gero eta nahiago daudela ehizaren munduko arauak eta ehiztariak kexu dira gaur egunean zaila delako jakiten noiz za-

Ehiza motaren arabera txakurra ezinbestekoa izan daiteke edo ehiztariak aukeran eramatekoa. Hala ere, gehienek txakurrarekin aritzea nahiago izaten dute.

baldu eta ixten diren denboraldiak eta zer ehizatu daitekeen bakoitzean eta zer ez.

Hala eta guztiz ere, ehiza gure artean nahikoa hedatua dagoen zaletasuna da. Gipuzkoa mailan, 1998/99 denboraldian, 25.576 lagunek atera zuten ehiza baimena diputazioko datuen arabera. Bergarara hurbilduta, 600 ehiztari inguru dagoela esan daiteke, aktiboan



600 ehiztari inguru daude herrian. Hauetatik 550 inguru aktiboan eta beste 200 batek utzia du ehiza, adinagatik batez ere

halere 550. Horrez gain ehiza utzitakoak ere kontuan hartzen baditugu, beste 200 zenbatu beharko genituzke. Ehiztari asko dago Bergaran, eta Euskal Herri osoan orokorrean, batez ere, populazio kopurua kontuan izanda eta dagoen ehiza urria.

BEHARREZKO BAIMENAK

Ehizara joateko kontuan hartu behar den lehenengo faktorea, ehizan non egingo dugun da, hots, geografikoki kokatu beharra dago, izan ere, estatuan 17 lizentzia behar baitira ehizan egiteko, komunitate autonomo bakoitzeko bat.

Ehiza baimenari dagokionez, Euskal Autonomi Erkidegoan baimen hau lehenengo aldiz ateratzen duenak azterketa bat gainditu behar izaten du maiatz aldera. Test tankerako azterketa izaten da, nahiko erraza eta komunitate autonomo batetik bestera konbalidatu egiten da. Urtetik urtera berriztu beharrekoa, nahiz eta azterketa soilik lehenengo aldiz ateratzen dutenentzat izan.

Seguruari dagokionez, suzko arma bat erabiltzeko ezinbestekoa den segurua. Urtebeteko iraupena du.

Arma baimenaren kasuan, konplikatzen hasia da ehiztarien ustez. Baimen hau lehenengo aldiz atera behar dutenek, azterketa teoriko-praktiko bat

egin behar izaten dute Intxaurrendoko Guardia Zibiletan. Praktikoak Jaizkibelen, ejerzitoaren instalazio batzuetan. Baimen hau bost urtean behin berriztu behar da, nahiz eta adinean gora egiten den heinean bi urtean behin edota urtero.

Baimen hauen guztien ordainketa egiteko gauzak erraztu egin zaizkie ehiztariari azken bi urteotan. Izan ere, data horren aurretik Kamara Agraria edota Diputazioan egin behar ziren baimen eskaerak. Orain, aldiz, EAEn txartel bat du ehiztari bakoitzak eta honekin Kutxara joan eta lehiatzen erakutsi baino ez du, ordainketa egin eta baimenak berritzeko.

ZER EHIZATU BERGARAN

Zer ehizatzen dute baina Bergarako ehiztariak? Arestian aipatu bezala, ez dago ehiza handirik gure herrian, eta ehiztariak asko dira. Honela, eta beti ere ehiztariaren arabera, aukerak bi dira, herrian bertan geratu edota kanpora joatea.

Herrian bertan ehizatzeke, usoak eta oilgorrak dira gehien botatzen diren piezak. Horrez gain, azeri eta basurdetan ere aritzen dira hainbat ehiztari nahiz eta hau ez den horren ohikoa. Iaz, adibidez, zortzi edo hamar basurde bota ziren Bergaran eta azeria

oso gutxi, gaiso bat izan dutelako. Hala ere izan dira ehun bat azeri ehizatu diren urteak.

Honekin guztiarekin eta laburbiduz, esan daiteke bergarrek uso eta oilgorretan egiten dutela gehien.

Haatik, eta pasekoak izateagatik, usoa ez da urte osoan zehar aurkitzen Euskal Herrian. Pasia amaitzen denean, azaroko lehenengo astean gutxi gorabehera, amaitu egiten da usotea. Horrez guztiaz gain, pase garaian ere, Bergaran uso asko ikusteko, nafarhegoaldeko haizeak jo behar du, hau ez baita bere pase naturalaren barnean sartzen den ibilbidea.

Oilgorrak ere paseko hegaztiak diren arren, hemen geratu egiten dira, hegazti mota honentzako pinudi eta ganaduentzako zelai garbiak paraje aproposak baitira egunean zehar gorde eta gauean jatera ateratzeko. Oilgorrak hemen geratzeari esker, hemen ehiza egiteko aukera dute ehiztariak kanpora joan gabe eta diru gutxiago gastatuz.

NON EHIZATU BERGARAN

Usotarako toki oso onik ez dagoen arren, Gorlan dagoen linea postua izango da Bergarako inguruetan dagoen hoberena eta horregatik ehiztariak gustokoen izaten dutena. Gorlako 30

EHIZTARIAREN ETIKA ETA JOKAERA

Europako Kontseiluak, ehiztariaren heziketari buruzko hainbat gomendio ematen ditu, eta ehiza jarduerarako behar diren etika eta jokaera jarrerak zehaztu. Honen guztiaren arabera, behar beharrezkoa da, ehiza erantzukizunez egiteko, tiro egin aurretik ehizagaia identifikatzea eta ezagutu ondoren, ehizatzeakoa denean, eskuratzeko posibilitaterik dagoen ikustea. Ez da inoiz zauritutako animaliarik jaso gabe utziko, eta behar ez duen oinazetik izan ez dezan eskuratzeko ahalagin guztiak egingo dira. Ingurugiro baldintzek animalien gaitasuna gutxitzen dutenean, ez da ehizan egin behar, faunari bizirik irauten laguntzeko.

Horrez gain, ehiza jarduerari mugak jartzea beharrezkoa izan daiteke espezieak kontserbatzeko. Ez da, bestalde, etikoa, baimendu gabeko espeziei tiro egitea, ezta ehizan bakarkako harrapaketa tekniken ordez multzokakoak erabiltzea ere. Ehizan inoren jabetzakoak diren lurak errespetatu egin behar dira, eta ehiztariak bertan inongo kalterik sortuko balu ordaindu egin beharko luke. Ehizarako seinaleei dagokienez, ezin dira aldatu, eta hori egitea delitutzat joko da. Azkenik, ehizatxakurraren heziketa, ehizalditik kanpo, horretarako gertatuta dauden zelaietan egin behar da, animalia basatiei eragozpenik ez sortzeko.



Bergaran uso eta oilagorrek dira pieza arruntenak. Bada azeri eta basurdeetan aritzen denik ere, nahiz eta asko ez izan

Ozaetako Amilotx kafetegian, egunero-egunero, Gatzagako uso ehizarako postuen zozketa egiten da. Antzuolan, aldiz, Gorkako postuena. Zozketan sartzearen truke bi mila pezeta ordaindu behar izaten dira; mila pezeta itzuli egiten dira, ordea, postua tokatu ezean.

praktikatzeko, txakurra oso garratzitsua da, luze ibiltzen den txakurra komeni da mendian oilagorretan aritzeko orduan, erraz nekatzen ez dena, eta hori dela eta, hemengo ehiztari gehienek Setter ingelesa erabiltzen dute oilagorretan. Dena den, bizitzako gainontzeko arloetan bezala, ehizan ere modak badu zeresanik. Orain hamar urte Pointer ingelesa zen gure artean gehien ikus zitekeen txakurra, orain, aldiz, Setterra, biak luze ibiltzekoak, hala eta guztiz ere.

Pasea amaitu eta Bergarako ehiza urria kontuan izanda, bada ehiza Bergarara zein Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora egiten duenik. Bergaran 600 ehiztari inguru badago, 300 inguru EAetik kanpo joaten dira eta 100en bat baino ez dira izaten Bergarako mendi eta basoetan geratzen direnak oilagorretan.

EAetik kanpo joaten diren ehiztariak aukeratutako ehizalekuak, Nafarroa eta Hueska izaten dira, eta denbora librea eta poltsikoa bero dutenak Extremadura, Gaztela-Mantxa edota Andaluziara joaten dira. Honelako komunitateetara ehizara joatean koto pribatuetan ehizatzea derrigorrezkoa da, EAetik kanpo ez baitago lursail liberrik. Honela kotoa eta bidaia ordaindu beharrik garestitu egiten du ehiza.<

koitzak eta posturik tokatu ezean mila bueltan jaso. Gorla eta Gatzagako postuetz gain, badira inguruan beste batzuk, Gurutzean eta Pagolan esaterako, nahiz eta oso onak ez izan. Arestian aipatu bezala, usoa paseko hegaltia da, urrian hasi eta azaro amaieran pasea amaitu egiten da, baina oilagorren kasua ezberdina izanik, parajea gustoko duenez hemen geratzen baita, ehiztariak oilagorrei ekiten diete

Oilagorrei dagokienez, ehiza mota oso ezberdina da. Ordu asko eman behar izaten dira mendian, eta ez da beti piezarik harrapatzen. Ehiza mota hau

postu hauek, baina, Antzuolako ehiza elkarteak kudeatzen ditu aipatu herriko lurretan daudelako. Honela, postu hauek egunero egunero zozketatzen dira arratsaldeko zortzietan.

Horrez gain, Bergaran ere egiten da honelako beste zozketa bat, Ozaetako Amilotx kafetegian hain zuzen ere. Bertan, Gatzagako linea zozketatzen da. Guztira 52 postu ditu linea honek, eta bakoitzean bi pertsonarentzako tokia dagoela kontuan hartzen badugu, 104 lagun ari daitezke ehizan aldi berean. Zozketa hauetan sartzeagatik 2 mila pezeta ordaintzen ditu ehiztari ba-

Reala, hirugarren mailako liderra, Agorrosinen bisitari zapatuan

Bergarak Real Sociedad B hirugarren mailako liderraren kontra jokatu du zapatuan Agorrosingo futbol zelaian, arratsaldeko 4:30etan.

Azken hiru partiduak galdu ondoren, Bergarak partidu zaila izango du Realeko bigarren taldearen aurka. Salva Iriarteren mutilak liderrak ditugu, 20 punturekin. Partidu bakarra galdu, bi berdindu eta gainontzeko seiak irabazi dituzte donostiarrek. Aldi berean, gol gehien egin dituen taldea da Reala, 21 golekina.

Bergara, aldiz, ez da momenturik onenean heltzen biharko partidura. Domekan Eibarren galdu ondoren, bergararrak sailkapeneko 17. postuan dira, 7 punturekin. Jesus Mari Biainen taldeak oraindik ez du lortu aurtengo denboraldian Agorrosinen partidurik irabazterik. Hala ere, horrek ez du entrenatzailea gehiegi kez-



Salva Iriarteren taldeak partidu bakar bat galdu du orain arte.

katzen. Biainen hitzetan, "nik taldea ondo ikusten dut; jokalaria ondo entrenatzen ari dira eta moral aldetik ere ondo gabiltza, nahiz eta azken partiduetan gauzak ez zaizkigun nahi bezala atera. Golaren aurrean efektiboagoak izatea fal-

ta zaigu. Eibarren aurka ere aukera garbiak izan genituen zerbait positiboa lortzeko baina kalitate indibidualak zeresan asko dauka eta beharbada hori botatzen dugu faltan".

Biainek bi partidu ikusi dizkio aurtun Realari; "kali-

tate handiko jokalariai dugu eta nahiz eta %50ean jokatu, diferentziak markatzen ditu. Hala ere, gure jokalariai ere motibatuta egongo dira eta ez diogu inolako beldurrik Realari. Partidua zaila izango da baina garaipena lortzea ez da ezinezkoa. Zapatuan etxeko lehen garaipena eskuratzea gustatuko litzaiguke". Aurrealdean aldaketak egin beharko ditu Biainek bihar, Gorka San Vicente lesionatuta dagoelako eta Oxel Apraizek ere ziurrenik ezin izango duelako jokatu. Defentsan Txonan Gallastegi ere hain izango da biharko.

BAZKIDEAK TAKILATIK

Realaren bisita aprobeztatuz, Bergara K.E.ko zuzendaritzak laguntza eguna izendatu du biharko partidua. Sarrerak 1.000 pezeta jarriko dira salgai eta bazkideek 500 pezeta ordaindu beharko dituzte.

Fontsi memorialaren IX. edizioa domekan

Igandean Fontsi memoriale izena daraman mendi bizikleta ibilaldia jokatu da. Lokatza Ziklismo Eskolako antolaturiko proba honi goizeko 10etan emango zaio hasiera Seminarioko patioan. Izen-ematea 9etatik aurrera egin beharko da bertan; federatuek 400 pezeta ordaindu beharko dituzte eta federatu gabeek, 600. Hamalau urtetik beherakoentzat izen-ematea donanekoa izango da.

Nagusiek 40 kilometroko ibilbidea bete beharko dute: Asentzio eta Irutontorretara igo ondoren, Labegarrietara jaitziko dira eta Ipiñarritik Etxague eta Rantxo Alegrerako bidea hartuko dute, proba Seminarioan bukatuz. 14 urtetik beherakoentzat 16 kilometroko zirkuitua prestatu da. Kaskoa erabiltzea beharrezkoa izango da. Proba amaitutakoan sarien zozketa egingo da eta partaide guztiei oroigarri bana emango zaie.



Behobia Txikia lasterketa bihar

Bihar, hilak 23, Behobia Txikia lasterketa jokatu da. Irteera goizeko 10:30etan egingo da Agorrosingo igerilekuetatik eta parte hartu nahi dutenek ordurako irteera puntuan aurkeztea besterik ez dute egin behar. Partaideek Bergara eta Soraluze bitarteko joan-etorria egingo dute, 15 bat kilometro guztira.

Abian frontenis txapelketa

Bihar zapatua Kirol Zerbitzuak antolatutako frontenis txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu da Angiozarko Arbiaska pilotalekuan. Goizeko 9etatik eguerdira bitartean eta arratsaldean, 15:00etan hasita, partiduak izango dira.

Behobiatik Donostiara

Datorren azaroaren 14an jokatu den Behobia-Donostia proban parte hartu nahi dutenek Lazkano oinetako dendan edo Bolintxo kirol dendan eman dezakete izena.



Paulo Pera (argazkian ezkerrean) eta Mikel Arakistain.

Arakistainek eta Perak zilarrezko dominak

Begarako Shotokan karate taldeko Paulo Pera eta Mikel Arakistain bigarren geratu ziren joan zen zapatuan Basaurin jokatuako Euskadiko Kopa Txapelketan, Gipuzkoako selekzioa ordezkatzuz. Paulok 23 urte ditu eta hiruzpalau urte daramatza selekzioan. Senior kategorian bigarren sailkatu zen zapatuan Gipuzkoako taldearekin. Mikelek, aldiz, kadete mailan eskuratu zuen zilarrezko domina. Mikelek 17 urte ditu eta dagoeneko Euskadiko selekzioarekin ere aritu izan da. Angel Daza Euskadiko hautatzaileak Mikelen konfiantza erakutsi du azkenaldian.

Paulok eta Mikelek Gipuzkoa eta Euskadiko ba-

nakako txapelketak prestatzeari ekin diote dagoeneko. Senior mailakoak oraindik fetxarrik ez duen arren, kadete mailakoa Usurbilen jokatu da azaroaren 14an. Iaz bigarren postuan sailkatu zen Mikel eta Josean Iñarra bere entrenatzaileak aurrean ere lehenengoan artean izateko itxaropena dauka.

Gipuzkoako txapelketan aurrean sailkatuz gero, Bergaran izango den Euskadiko txapelketarako txartela lortuko du Mikelek. Abenduaren 18an kadete eta junior mailako Euskadiko karate txapelketa jokatu da Begarako Kiroldegian. Bertan 140 karateka inguru izango da. Shotokan taldeak Euskadiko Federazioarekin batera antolatuko du proba.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Begara-Real Sociedad B

Hirugarren maila
Zapatua. 16:30. Agorrosin

Begara-Aretxabaleta

Infantilak
Domeka. 10:00. Ipintza

Begara-Urki

Bigarren mailako jubenila
Domeka. 11:30. Ipintza

Begara-Urola B

Lehen mailako jubenila
Domeka. 16:30. Agorrosin

ESKUBALOIA

Begara-Leizaran Txiki

Kadete neskak. Zapatua. 16:15

Begara-Legazpia

Jubenil neskak. Zapatua. 17:30

Begara-Elgoibar

Jubenil mutilak. Domeka. 10:30
Denak Kiroldegian.

SASKIBALOIA

Begara-Tolosa

Kadete mutilak
Domeka. 10:30
Mariaren Lagundia

ARETO FUTBOLA

Begara-Zaldibi

Senior mutilak. Eguakitza. 22:30

Begara-Eskolapios

Jubenil mutilak. Zapatua. 12:30

Begara-Hegoaldea

Senior neskak. Domeka. 12:00
Denak Kiroldegian

PILOTA

KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA

Begara 1-Loiolatarra

Bigarren mailako seniorrak

Begara-Zestoa

Lehen mailako seniorrak (banaka)
Eguakitza. 19:30. Udal Pilotalekua

Begara 2-Añorga

Bigarren mailako seniorrak

Begara-Hernani

Lehen mailako seniorrak
Domeka. 12:00. Udal Pilotalekua

CAFE BAQUE TXAPELKETA

Biteri-Agirre

Agirre-Herrando

Orueta-Herran (Begara)

Gracia-Alkorta

Martitzena. 19:30. Udal Pilotalekua



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



Matxiategi
Elektragintza
S.L.


ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming 5 ☎ 943 76 19 94



Labegaraietako futbito txapelketa

mahoneroak



MIKEL OSORO
BKEko kapitaina

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

- 09:15: Bildurbarek-Amilotx
- 10:15: Patatus-Patxaran Team
- 11:15: Buya-Shaktale
- 19:00: Mo(ko)lotov-Pagomendi
- 20:00: Mongatxurak-Bayer

- Patatus
- Buya
- Patxaran
- Mongatxurak
- Shaktale

ZAPATUAN KANPOAN

- 10:15: Aterpe-Komando Piperrak
- 16:00: Ortzí-Vacalouras
- 17:00: Irubide-Azpeitxi

- Amilotx
- Irubide
- Vacalouras

DOMEKAN BARRUAN

- 09:00: Tom Cat-Urruxurtu
- 16:00: Etengabe-Pinturas Bergara
- 17:00: Ion Autoak-Uve Bikoitza
- 18:00: Torrekua-A Ze Flaxa Etxagi
- 19:00: Xurruapak-Ufala
- 20:00: Moskis-La Juve

- Txipiron
- Ion Autoak
- Torrekua
- Xurruapak
- Moskis
- Ufala

DOMEKAN KANPOAN

- 10:00: Txipiron-Artusamak
- 11:00: Errotagain-Fac
- 12:00: Amozkibar-Agirrebeña

- Errotagain
- Amozkibar
- FAC

GORA ETA BEHERA



Partidu guztiak irabazi dituztenak

Pagomendi, Azpeitxi, A Ze Flaxa Etxagi, Artusamak eta Errotagain taldeak ditugu orain arte jokatu dituzten partidu guztiak irabazi dituzten talde bakarrak. B multzoan, berriaz, inork ez du lortu puntu guztiak eskuratzea.



Huts eta hutseko berdinketa

Mo(ko)lotov eta Ari Ariren arteko partidua huts eta hutseko berdinketarekin amaitu zen, futbitoan oso ohizkoa ez den emaitzarekin. Bayer, Komando Piperrak, Canalejas eta Soropotroak taldeek ere ez zuten golik sartu asteburuan.

ARGI! Nortasun agiriak aurkeztu

Oraindik aurkeztu ez dutenei, nortasun agiria lehenbailehen entregatzea eskatu die Antolaketa Batzordeak. Bestalde, Buya-ko Iñigo de Loiolari eta Torrekua-ko Mikel Garateri hiruna partiduko zigorra ezarri die Antolaketa Batzordeak elkar joka aritzeagatik.

EMAITZAK

A MULTZOA

Pinturas Bergara-Moskis	3-4
Pagomendi-Etengabe	7-2
La Juve-Irubide Jatetxea	2-4
Mo(ko)lotov-Ari Ari	0-0
Azpeitxi Jatetxea-Sirimiri Eri	13-3

B MULTZOA

Urruxurtu-Mongatxurak	5-5
Bayer-Bildurbarek Opel Lam	0-10
Tom Cat Argandolas-Patatus	2-1
Agirrebeña Jatetxea-Patxaran Team	1-10

C MULTZOA

Torrekua-Ion Autoak	4-5
Shaktale-Ortzí	5-1
Vacalouras-Agiñazpi	10-3
Soropotroak-Uve Bikoitza	0-3
A Ze flaxa Etxagi-Buya	5-2

D MULTZOA

Guadalest-Komando Piperrak	3-0
Artusamak-Bar Canalejas	2-0
Ufala-Txipiron	1-6
Errotagain-Aterpe	5-1
FAC-Xurruapak	2-2

A multzoa

	P	J
1. Azpeitxi Jatetxea	12	4
2. Pagomendi	12	4
3. Ari Ari	7	4
4. Mo(ko)lotov	7	4
5. Moskis	6	4
6. Sirimiri Eri	3	3
7. Irubide Jatetxea	3	3
8. Etengabe	3	4
9. Pinturas Bergara	0	3
10. La Juve	0	3

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	12	4
2. Shaktale	7	3
3. Uve Bikoitza	7	4
4. Ion Autoak	6	3
5. Ortzí	6	4
6. Vacalouras	6	4
7. Buya	6	4
8. Agiñazpi	3	3
9. Soropotroak	0	3
10. Torrekua	0	4

B multzoa

	P	J
1. Mongatxurak	7	3
2. Urruxurtu	7	4
3. Amilotx	6	3
4. Tom Cat Argandolas	6	3
5. Agirrebeña Jatetxea	6	4
6. Bayer	4	3
7. Patxaran Team	4	4
8. Amozkibar	3	2
9. Bildurbarek Opel Lam	3	4
10. Patatus	0	4

D multzoa

	P	J
1. Errotagain	12	4
2. Artusamak	12	4
3. Guadalest	9	4
4. Xurruapak	7	4
5. Bar Canalejas	6	4
6. FAC	5	4
7. Txipiron	4	4
8. Ufala	3	4
9. Komando Piperrak	0	4
10. Aterpe	0	4


Azken hiru partiduak jarraian galdu ditugu baina Eibarren aurka zorte gehiago merezi izan genuen dimitzekan. Partidu serioa jokatu genuen eta pena da azken metroetan ez dugula asmatzen, kosta egiten zaigu golak egitea. Golari begira ezinezan gabilta eta hori berri gertatu zitzaigun Eibarren. Bigarren zatian gola egin ziguten eta hortik aurrera berdinketaren gola egiten saiatu ginen baina ezinezkoa izan zen punturik eskuratzea. Eibartarren atezaina oso ondo aritu zen eta, egia esan behar bada, partidua berdindu edo irabazteko aukerak izan genituen.

Hirugarren mailan talde berria garenez, eibartarrek beharbada konfiantza gehiegirekin jokatu zuten eta uste baino gehiago kostatu zitzaien garaipena eskuratzea. Zapatu arratsaldean Reala, geure multzoko lidera, izango dugu bisitari eta partidu zaila izango da, eta daukat dudarik. Hala ere, Realekoen aurrean gaudela "ahaztu" eta etxeko lehen garaipena lortzen ahaleginduko gara.

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...


Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

■ kronika: emakumezko futbol taldea

Gol ugari Ipintzan

BERGARA 9

URKI 3

1999-X-16. 17:30.

IPINTZA

Bergara: Uxue Lazkano; Maite Iñarra, Goreti Elorza, Lisbert Iñarra (Saioa Bolibar, 73. min); Jasone Larrañaga, Silvia Valor, Maite Lazkano, Maider Urbina, Amaia Laskurain; Maider Birumbrales (Lexeia Larrañaga, 55. min.) eta Jone Azkarate (Amaia Osa, 73. min).

Golak: 1-0. Maite Lazkano. 2-1. Maite Lazkano. 3-3. Jasone Larrañaga. 4-3. Jasone Larrañaga. 5-3. Jone Azkarate. 6-3. Maider Urbina. 7-3. Maider Urbina. 8-3. Lexeia Larrañaga. 9-3. Silvia Valor.

Ligako lehendabiziko bi partiduak galdu ondoren, nesken futbol taldeak mar-



Nesken futbol taldeak errez irabazi zion zapatuan Eibarko Urki taldeari.

txa zuzendu du azken hiru-
rak jarraian irabaziz. Zapa-
tuan 9 eta 3ko emaitzarekin
irabazi zion Eibarko Urki
taldeari. Partidua hasi eta
berehala neurketa bergara-
rren alde jarri zen, Maite
Lazkanok lehendabiziko
minutuan sartu baitzuen au-
rreneko gola. Etxekoak era-

sora atera ziren eta eibarta-
rren defentsa bergarar joka-
lariak jokoz kanpoko posi-
zioan uzten ahalegintzen
zen behin eta berriz. Ondo-
rioz, jokalaria gehienak zelai
erdian pilatzen ziren eta ez
zen erreza joko ona egitea.
Silvia Valorrek egin zuen
partiduko jokaldirik onene-

takoa, zelai erdian jokalaria
guztiak atzean utzi eta ate-
zainaren aurreraino heltze-
an. Hala ere, azken jaurtike-
tan ez zuen zortirik izan.
Eibartarrek arriskua sortu
zuten kontraerasoan berga-
raren areara hurbiltzen zi-
ren bakoitzean eta, partidua
bi aldiz berdindu ondoren,
atsedena baino lehen mar-
kagailuan aurretik jartzea
lortu zuten. Eibartarren
erreakzioak ustekabean ha-
rrapatu zituen etxekoak.

Bigarren zatiaren hasie-
ran Jasone Larrañagak falta
jaurtiketa baten bitartez ber-
dinketa lortu zuen eta hortik
aurrera Bittor Agirrebare-
naren entrenatzen duen
taldea erabat nagusitu zen.
Bergararrek aukera pilo bat
izan zituzten, azken metroen
finegi aritu ez arren.

Hala ere, beste garaipen
bat eskuratu zuten eta sail-
kapenaren goialdean dira.
Bergararren asmoa sailka-
peneko lehen bosten bar-
ruan geratzea da, igoera fa-
sea jokatu ahal izateko. Ho-
rretarako ezinbestekoa jo-
tzen dute etxeko partidue-
tan zaletuen laguntza izatea.
Astebukaera honetan Ama-
kak Bat taldearen aurka jo-
katuko dute Deban.

OIHANA GARMENDIA/ Eskubaloi entrenatzailea

"Erasoko jokaldietan hobetu beharra dugu"

**Hamar urtetan eskubaloi-
jokatzen aritu ondoren,
Oihana Garmendiak (19 ur-
te) Bergarako kadete nes-
ken taldea entrenatzeari
ekin dio aurtengo denboral-
dian.**

G. Aulkian ala jokatzen gusto-
rago?

E. Jokatzen gehiago disfruta-
tzen nuen. Aurten ezin nuen jo-
katzen jarraitu Bergaran senior
talderik ez dagoelako. Eskuba-
loiarri lotuta jarraitzeko modu
bakarra entrenatzaile izatea
zen. Kadeteak entrenatzea es-
kani zidaten eta baiezkoa eman
nuen. Nirekin batera, Lorea eta
Argiñe Zurutuza ari dira lagun-
tzaile lanetan.

G. Asko sufritzen da aulkian?

E. Sufritzeko ez du merezi hor
aritzea. Dibertitzea eta jokala-
riekin ondo konpontzea da in-
portanteena. Gertatzen da par-
tiduetan, zenbaitetan, jokala-
riek ez digutela kaso handi-
rik egiten. Nik ere egiten
nuen. Orain, berriz,
amorrua ematen dit
ohiu egin eta kasorik
egiten ez dutenean.

G. Zeintzuk dira
taldearen alde
onak eta txar-
rak?

E. Defentsan
ondo aritzen
gara baina era-
sotzerako or-
duan golak egi-

teko arazoak ditugu. Kontuan
izan, jokalaria gehienak 14 urte-
koak dira eta beste talde ba-
tzuetan 15 urtekoak dira naga-
si. Urte bateko alde asko na-
baritzen da kategoria honetan.

Hurrengo urtean taldearen
hobekuntza igarriko da.

G. Entrenamenduetan
zeri ematen diozue ga-
rrantzia?

E. Baloia mobitzea,
paseak ondo
egin, arlo fisi-
koa eta era-
soko jokal-
diak lantzen
ditugu batik
bat. Defen-
tsan hobeto
gabiltza.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Pisua salgai Antzuolan. 94376 65 65.

Zabalotegi dorrea. 943 76 40 24.

EROSI

Pisu txiki bat erosiko nuke Bergaran. Deitu 656 72 02 42 telefonora.

Pisua erosiko nuke Matxiategi inguruan. 649 27 54 36.

Pisua erosiko nuke Ibargarain. 943 76 82 59.

ERRENTAN EMATEKO

Torremolinos. Hondartza ondoan. 943 76 33 58.

Logela bat errentan Donostian, Amaran. 943 76 55 26 (gauzez).

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alokairuan Bergaran. 689 991 070.

Bergaran edo inguruan. 943 76 03 31.

Bikote batek Bergaran edo Arrasaten. 619 15 44 06 (Fran).

Pisua alokairuan hartuko nuke. 943 76 56 51.

ETXE KONPARTITUAK

Gela edo pisua konpar-

titzeko nahiko nuke. 943 76 06 25 (Shane).

2. GARAJEAK

SALDU

Torrekoa. 943 76 00 93.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Antzuolan, Lizarragan, salgai edo alokairuan.

Deitu 670 49 87 40 telefonora.

Koldo Eleizalde. Deitu 943 76 36 34 telefonora.

Torrekoa. 943 76 28 24/39 49 78.

Garajea salgai Bolun. Deitu 943 76 19 69 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Antzuolan, Ibarraondon. Deitu 943 76 61 15 telefonora.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. Deitu 943 76 11 13 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Ibargarain, bulego lanetarako prestatuta. 607 34 46 58.

Matxiategi. 943 76 22 09.

Zubietan 136 m². 943 76 08 18.

4. LANA

ESKAITZAK

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Pertsona nagusiak zaintzen ditut gauzez. 610 01 06 19

Etxeak garbitu edo zaharrak zainduko nituzke. 600 600 531.

Emakumeak etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94

Haurrak zaindu edo dendarri lanak egingo nituzke. 943 76 54 40.

Etxeko lanak egin, haurrak zaindu edo dendarri lanak egingo nituzke. 943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 24

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 619 15 44 06 (Fran).

Klinika laguntzaileak gaisoak edo zaharrak zainduko nituzke. 609 77 01 33 (Aisis).

Umeak zaindu amate-



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

izeder

ARTE DEKORATIBOKO ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2



SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK



IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak




San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Maria Lili 6, behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54
Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00



IRAEGI ASEGURUAK

dez. 943 76 34 48 (Mayra).

ESKAERAK

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 07 89 (gauzez).

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 00 55 (gauzez).

Ume elbarritu bat zaindu eta etxeko lanetarako pertsona bat behar da. 943 76 53 13.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles filologian lizenziatuak klaseak eman. Deitu 943 76 30 28 telefonora (Ana).

Kitarra klaseak ematen ditu. 943 76 45 73.

Majisteritzan diplomatuak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Ingeleseko majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 21 09.

Solfeko eta piano klaseak. 943 76 72 69.

OHO. 943 76 37 94.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Lancia Delta. 943 76 51 01.

Peugeot 205. Prezio ona. 943 76 36 74.

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

Renault 19-16 V. 1, 3 milioi. 943 79 10 08.

Renault 5 (SS-AP). 125.000. 943 76 26 19.

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Kawasaki GPZ 400 motoa. 943 73 18 72 /73 12 82.

Yamaha Jog Scooter motorra (90 cc.) salgai 943 73 18 72/73 12 82.

Citroen Saxo 1.1i. Bi urte. 943 76 12 66 (Xabi).

Chrysler kotxea salgai. 943 76 42 76.

Opel Corsa. Merke eta ondo. 943 76 02 89.

Vespa Iris 200 motorra (SS-AF). 943 76 06 92.

Renault Clio Williams

(SS-AP) . 945 24 11 25.

Derbi Senda motorra (49 cc.) egoera onean. 943 76 09 27 (Ivan).

7. ANIMALIAK

SALDU

Artzain aleman txakurkumeak. Pedigreeduak. 696 05 73 46.

Hiru txakur ar eta eme bat emateko. Borondatea. 943 76 49 09.

Spaniel breton txakurumeak. 943 79 19 63.

Hamsterrak salgai. 943 76 70 15.

8. DENETARIK

SALDU

Karabina salgai egoera onean. 943 76 38 87.

Errepideko Zeus bizikleta salgai. 943 76 49 88.

Ume-kotxe estalkiduna. 943 76 06 89.

Apalak salgai. 943 76 25 79 (gauzez).

Modema eta idazkama-kina elektronikoa. 619 15 44 06 (Fran)

Canyon piragua salgai. 943 76 62 63.

Piragua bat salgai. Oso egoera onean. 943 76 16 60 (Jabier).

Kitarra elektrikoa. 943 76 44 27 (Unai).

Idazmakina elektronikoa. 943 76 42 76.

Sony bideokamera prezio onean. 639 936 841

Play station bat salgai: 3 joku, mandoa eta abar. 20.000 pezeta. 943 76 52 16.

Chaman piragua, txaleko berezia, pala eta kotxeko barrak. 50.000. 943 77 01 74 (Felix).

HARTU

Familia batentzat gasukalde bat behar da. Caritas. 943 76 72 77.

GALDU

Pultsera galdu dut., urriaren 7an. Urrezkoa harri urdinekin. Eskertuko da. 943 76 72 76 / 12 41.

Urrezko pultsera galdu da, Nora izenarekin. 943 76 08 40.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

KOMERTZIALAK, 10
Bilbo. 23692/2

KOMERTZIALAK, 15
Bilbo. 23698/2

BULEGORAKO DELEGATUA
Ibai ezkeraldea. 24718/3

ASEGURU AGENTEA
Ibai ezkeraldea. 24720/3

AUTOMATA PROGRAMATZAILE IKASTAROA
Donostia. 24830/2

AUTOCAD IRAKASLEA
Deba Behea. 24832/2

MANTENIMENDU MEKANIKOA
Bartzelona. 24836/1

TARIMA JARTZAILEA
Bilbo. 24886/2

SOLDATZAILEA
Goierri. 22979/5

TELEKOMUNIKAZIOETAKO 2 MANTENIMENDU TEKNIKARI
Bilbo. 24887/3

INJINERU TEKNIKOA
Bilbo. 24893/3

KARROZEROA
Bidasoa Behea. 23871/3

KARROZERO OFIZIALA
Arabar Lautada. 24350/3

KOMERTZIALA
Bilbo. 24173/2

PROGRAMATZAILEA
Deba Garaia. 24362/2

IGELTSEROAK, 2
Deba Garaia. 24363/2

AROTZA
Deba Garaia. 24365/2

SUKALDARIA
Malaga. 24427/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Agirrebeña

JATETXEA



Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi die bere bezero eta lagunei:

Maiatzera arte, astelehenetik eguenera bitartean, ez dugu afaririk emango, jaiegunetan izan ezik.
Barkatu eragozpenak.

Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38


Ileapaintzailea
bahar dugu

943 76 56 69

SANTOS
IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10



A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38

Moda desfile ikusgarri eta arrakastatsua Bedelkarren eskutik Raul Luqueren alde

800.000 pezeta batu ziren domekan bergarar gazteari laguntzeko

Arrakastatsua eta ikusgarria gertatu zen joan zen domekan Jam aretoan antolatutako udazken-neguko moda desfilea.

Pasarela gainean desfilatu zuten modeloak bikain aritu ziren eta antolatetan jardun zuten guztiek lan ezin hobe egin zuten. Bestalde, bildutako ikusleriak Bedelkarreko dendariak saso honetarako eskaintzen dizkiguten jantziekin disfrutatu egin zuela esan daiteke.

Antolatzaileek BERRIGARARI adierazi diotenez, 800 lagun bildu ziren Jam aretoan moda desfilea ikusteko. Batutako dirua Raul Luqueri laguntzeko izan zela kontuan izanda, pozik agertu dira honen koadrilako lagunak, moda desfilearen bultzatzaileak.

ERA GUTZIETAKO JANTZIAK

Ikusgarriak eta finak izan ziren Igarza eta Nereak erakutsitako lentzeria, eta lotarako pijama eta kamisoiak. Subijai eta Txiki-Laket jantxidendek, berriz, haur eta gaztekoentzako moda alai eta koloretsua proposatu ziguten. Ikusbi, Agirre eta Laket-ek, gizon eta emakumezkoentzako adin guztietarako jertse, alkandora, txaketa, praka, soineko, gona eta brusa zein baino zein politagoak erakutsi zituzten.

Gazteentzako moda informal eta eroso eskaini zigun Cristina jantzidendak eta alai eta koloretsua izan zen Jauja kirol dendaren erakustaldia. Andrazkoentzako jantzi dotore eta ederak izan ziren Zatoiak erakutsitakoak



eta Bergara Piel-ek itxura bikaineko narrukiak eskaini zituen, udazken eta negurako egokiak. Manso Optikak modomodako betaurrekoak erakutsi zituen eta ekitaldiari amaiera emateko, Gasteizko Dochy Novias eta Yazar Novio-ek gizonezko zein emakumezko erakongaiantzeko bosna aukera proposatu ziguten, batzuk klasikoagoak eta beste batzuk modernoagoak.

GIZONEZKOENTZAKO LENTZERIA

Azpimarratzekoa izan zen Raul Luqueren lagunek egindako biluzte saioa, "Nueve semanas y media" eta "Full monty" pelikulen musikaren laguntzaz eta, ondorengo kantzontziloen pasae. Era berean, nabarmentzekoa da Mikel



Jam aretoa leporaino bete zen eta ikusleriak gertutik jarraitu zituen herriko modeloen joan-etorriak.

GASTON Y DANIELA

Oihal batek aldatzen du dena

BERGARA

Kruz Gallastegi 3,


☎ 943 76 07 37

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.

Tf. 943 76 25 03



Ekerrean, Raul Luqueren koadrilakoen biluzte saioko irudi bat. Behean, Mikel Vicente pasarelan.


Vicentek, iaz auto istripu larria izan zuen bergarar gaztea eta Raul Luque bezala Aita Mennin ingresatuta egon zena, desfilean parte hartu izana. Gainerako guztiak bezala, bikain aritu zen eta pasarela gainera atera zen bakoitzean ikusleriaren txalo zaparrada ederra jaso zuen.

Antolaketa eta produkzio lanetan Marisabel Hurtadok jardun zuen eta nabarmentzekoa da berak ere guztiak antolatzen egindako lana. Gainera, pasarela gainean ere desfileatu zuen.

Esan dezagun, amaitzeko, joan zen astean Baster jantzidendako Maria Jesus Ibañezek orrialde hauetan adierazitakoari erantzun nahi izan diola Marisabel Hurtadok. Alde batetik, desfilean parte hartu zuten guztiak zoriondu nahi izan ditu eta bai desfilean parte hartu zuten zein berau ikustera Jam aretora inguratu ziren guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie.

Horretaz gain, BERRIGARARI esan dio moda desfilea antolatzerako orduan Bedelkarrera jo zuela, bertan herriko dendari guztiak zeudelakoan. Bedelka-

rrekoek desfilean parte hartuko zuten zerrenda eman ziotenean, arrazoi bategatik edo besteagatik batzuk gonbitea bertan laga zutela esan zioten eta, honenbestez, interesa azaldu zutenekin aurrera egitea erabaki zuen Marisabel. Baster jantzidendako Maria Jesus Ibañezi, azkenik, esan nahi dio desfilean parte hartu nahi bazuen, antolatzailerkin harremanetan jarri besterik ez zuela, hauek gustora asko hartuko baitzuten aintzakotzat eskaria.



erreseinak



Jose Luis Otamendi

Euri kontuak

Kontakizun laburrak

Jose Luis Otamendi azpeitiarra ezaguna dugu orain arte argitaratutako sei poesia liburuengatik ez ezik, Bide Ertzean taldeak bere testuei musika jarri dizkielako. Oraingo honetan, luzera txikiko hogeitau ipuin eskaintzen dizkigu "Euri kontuak" izeneko bere lehen narratibako liburuan.

- Susa. 168 orr. 1.800 PTA



Jabier Muguruza

Fiordoan

Pop

Muguruza anaien zaharrenaren lagarren bakarkako CDA da "Fiordoan" izeneko hau. Aurrekoaren ildo bereetik, Jabier Muguruzaren ahotsa nabarmentzen da beste ezerean gainetik. Halere, pianoa, baxua, perkutsoia saxoa eta kitarra ere entzun daitezke diskoan eta baita hiru emakumeren ahotsak ere: Lidia Pujolena (Jabier Muguruzak bezala Jackson Brownen diskorako kolaboratu zuena), Amparo Sanchez Amparanoia taldekoarena eta Garazi Jabierren alabarena. Testuak, besteak beste, Atxaga, Aristi eta Jose Luis Padronenak dira, eta Muguruzak berak ere idatzi du abesti bat. Hamaika kantu biltzen dira diskoan, tartean "Euskadi jende gutxi", Les Mecaniciens taldean zegoenean Jabier Muguruzak berak idatzi zuen abestiaren moldaketa.

- Esan Ozenki. 2.100 PTA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimakerak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77



Txikiak
ume eta gazteen oinetakoak

Otalora lizentziatua 21.

Tf. 943 79 44 70.



Arrasate

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Hizketaldia. 2. Emakumezkoa. Röntgen. 3. Infin., kendu. Baraja bat osatzen duten kartoizko piezak. 4. Behiak zaintzen dituen. Dauzkazu. 5. Musika nota. Zuhaitz-mota. Kontsonantea. 6. Bokala. Hizea. Kasik. 7. Buruko apaingarria. Kolore militarra. 8. Nahastura trinkoa. Bokala. Errepikatuz, ergel. 9. Gipuzkoako herria. Enda. 10. Beldurtia. Iparretarrak.

Goitik behera

1. Ikusgarriak, larriak. 2. Ospea. Gipuzkloako ibaia. 3. Beharra. Pl., 100 m². 4. Nor atzikia. Trebea. Lehenengoa. 5. Gorputzeko tenperaturaren igotzea. Kanpo. 6. Berarengandik irten zinen. Infusio-mota. Gaixo. 7. Adurrak. Jainko egip-toarra. 8. Informazio xehea. Ate, hitz elkarketan. 9. Bat. Le-hena eta azkena. Garbitu. 10. Arkuen kanpoko azal ganbilak.

Soluzioa

10. Arkugainak
9. l. Az. kuzti
7. Lendeak. Ra. 8. Datua. Ata
5. Soterra. At. 6. Ama. Te. Eri.
3. Lera. Areak. 4. Ak. laioa. A.
1. Sektoreak. 2. Omene. Ora.
Goitik behera
8. Aia. Arraza. 10. Kakatia. Ik.
7. Korra. Kati. 8. Orea. E. Tun.
4. Aia. Airea. G. 6. A. Airea. Ia.
2. Kan. Karak. 4. Unia. Duzu.
1. Soterdia. 2. Emakumea. R.
Ezker eskuma

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein da 1983. urtean inauguratu zuten elkarte honen izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Nor aukeratu zuten osintxuarrek joan zen asteburuan auzo alkate kargurako?
A- Rosario Baquerin
B- Ainhoa Arbelaitz
C- Iñaki Etxaniz
- Zein da zapatuan Bergaran izango den Real Sociedad B taldearen entrenatzailea?
A- Miguel Etxarri
B- Jesus Mari Zamora
C- Salva Iriarte
- Zenbat ikusle bildu ziren joan zen domekan udazken-neguko moda desfilean?
A- 800 lagun inguru
B- 700 lagun inguru
C- 1.000 lagun inguru



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Izar Morillas**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Izarri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Zabala Enea** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE

1:

2:

3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Bilore
garbigarria, 3kgr.ko maleta
495 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

29 urte ditu eta hauetako hainbat Pol-Pol mendizale elkarteko idazkari lanetan eman ditu, 1991. urtetik hain zuzen ere. Mendia izugarri gustazen zaio, astero joaten ei da. Igo duen azken mendia Pala de Ip deitzen da, Izas bailaran.

Maite Irizar

Euskal Herriko mendi bat?

Aizkorri.

Eta Euskal Herritik kanpokoak?

Aneto.

Zerekin hasiko zinake pozez saltoka?

Loteria on bat tokatuz gero. Egingo neuzuen lehenengo gauzia bidaia bat izango litzake, toki asko daukatelako ikusteko, eta horren ostian etxe bat eraikiko neuke.

Jaso dozun azken oparia?

Eta egin dozuna?

Jasotakua mutilak oparitutako mendirako botak eta nik egindakua prismatikuak.

Txikixa ziñanian zer izan nahi ziñuan haundittan?

Ez naiz akordatzen.

Zer ikasi biharko genuke lehengo sasoietatik?

Gauza asko, daukagunakin konformatzen adibidez.

Zelan definituko ziñuke zure burua?

Pertsona ireki eta on bat bezala.

Gustatzen ez jatzun zure izaerako ezaugarri bat.

Pronto txarrekoa naizela.

Moda kontuan hartzen dozu?

Fijatzen naiz modan baina derrigorrez jarraitu barik.

Arriskuzalia zara ala segururako joeria daukazu?

Segururako joeria daukat.

Maitasunagatik einddako zorakerixaik haundixena?

Ez dakit, ez dot gogoratzen.

Mendi erromantikuena?

Edozein, guztiak izan leizke erromantikuak.

Kolore bat.

Urdina

Usain bat.

Basoko usaina.

Bikotiai zer ez zontsake barkatuko?

Ia dana barkatuko notzake.

Gustoko idazle bat.

Ez jat bereziki bat gustatzen.

Telebista zalia za?

Nahikotxo.

Gustatzen jatzun eta gustatzen ez jatzun saio bana.

Gustau pelikula eta dokumentalak batez be eta ez jataz gustatzen lehiaketa saioak eta horrelakoak.

Sukaldari ona za?

Ez. Oso gutxi jarduten dot sukaldian, gaiñera.

Janari eta edari gustokoak?

Txipiroiak eta Coca-Cola.

Zein musika entzuten dozu?

Musika asko entzuten dot. Orduro musika entzuten nago eta gustoko talde eta bakarlari asko dauzkat. Bat esatearren Mike Oldfield esango dot.



NASA JURASSIC PARK MARIO BROSS LA MOMIA JUMANJI DRAGONHEART STAR TRECK MEN IN BLACK JAMES BOND DURACELL
BABILON V
TITANIC CASPER APOLLO 13 NISSAN
MATRIX
M&M'S
APOLLO 13
CASPER

multimedia eta animazioa
photoshop
maketazioa
diseinu industrialia

aul@xxi
XXI ikasgel@

infografia 3D
diseinu grafikoak
internet, web
ofimatika

LAISTER ZABALIK
Zure ikasketa zentru berria

Irakasle bat taldeko
ikasleko ordenadore bana

Aula XXI, Mintegi kalea, 5 (tokieder) 20570 BERGARA Tf: 943-76 59 20 Faxa: 943-76 56 60

943 76 59 20
informazioa



Estrella Txiki taldea, 1948

Garai batean Seminarioan dominikoek antolatzen zuten futbol txapelketako argazkia da aste honetakoa. Bertan agertzen den lagun kodrilak Estrella Txiki taldea osatzen zuen 1948. urtean. Garai hartan 12 urte izango zituzten eta dominikoek Seminarioko ikasleen artean antolatutako futbol txapelketan beste hainbat taldeekin izan ziren lehian. Ez digute konfirmatu txapeldunen koparik eskuratu zuten baina kamara aurrean behintzat estiloa ez zaie falta.

Itxuraz, erretratu domekako mezaren ostean aterata dago. Argazkilaria espreski etorri zen taldeak erretratatzera, nahiz eta domeke-

tan partidurik ez jokatu. Hor ditugu Estrella Txikikoak, dotore-dotore kamiseta urdinarekin, futbolarien orduko jarrerarekin (zutik eta baloia hankaren azpian) eta ondo baino hobeto orraztuta. Fray Moisesek antolatzaile eta entrenatzaile lanak betetzen zituela esan digute.

Hara zeintzuk diren argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara: Juanito Etxeberria "Chachi", Victor Larrañaga, Julian Peña, Roman Larrañaga, Fray Moises, Luis Mari Egaña, Jose Mari Urrutia eta Cruz Mari Odriozola.

Argazkia: Roman Larrañaga

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29



Zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Gidari onenek

OHOREZKO-MATRIKULA

merezi dute

Aldatu zaitez MAPFREra

Azkartu itzazu zure bonifikazioak

Orain zure automobilaren aseguruia aldatzea **ez zaizu ezer kostako.**

Mapfrenen **Ohorezko Matrikula Planarekin**, oraingo polizaren antiguedadeari ãutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).

Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean.**



Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

Internet eta informatikako Bergarako gunea

Ikastaroak

Interneta

Windows 98

Microsoft Office:

Word

Excel

Access

Powerpoint

Corel

Mikroinformatika

instalazioa eta mantenimendua

Mekanografia

Eta orain
ingeles metodo
berriena ere
zure esku!

Horrelaxe ikasten da ingelesa!



Ingelesa ikastea orain
azkarragoa, errazagoa eta
atseginagoa da

Multimethodekin,

XX. mendeko metodorik
aurrerakoiena.

Dohaineko azalpen saioak
Bergarako **Sarean** bisitatuz.


Sarean

ZIBERLEKUA



WALL STREET INSTITUTE
Ingeles liderra

Masterreka 13, behea. BERGARA.
943 76 91 08



Zuretzat,
bidalketa sistema
fidagarri bat edukitzea
ez da aukerarik garrantzitsuena.

Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAUEK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GULTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKO XEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEA
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



GUIPUZCOANA
Paketeen Garraio eta Banaketa



Beti garaiz.